



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urtarrilaren 19a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Abenduaren 23ko 17/2009 Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.
Akats zuzenketa (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Ezkaibarteko Udalaren kiroldogiko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (3. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Abenduaren 23ko 17/2009 Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 17/2009 Foru Legean akats bat atzeman da. Legea 2009ko abenduaren 30eko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da aipatu foru legean:

Gaztelaniazko testuan, legearen zioen azalpean, 2. orrialdeko bigarren zutabean, ondokoa dio: "Se modifica el artículo 60 del texto refundido con el fin **de** de incrementar..." Horren ordez, hau esan behar du: "Se modifica el artículo 60 del texto refundido con el fin de incrementar..."

Bosgarren orrialdeko bigarren zutabean –2. artikulua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea–, ondokoa dio: "2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, eta deusetan galarazi gabe **Bat, Bederatzi, Hamabost, Hamasei eta Hemezortzi** idatz-zatietan ezarritakoa..." Horren ordez, hau esan behar du: "2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, eta deusetan galarazi gabe **Bat, Hamabi, Hemezortzi, Hemeretzi eta Hogeita bat** idatz-zatietan ezarritakoa..."

Gaztelaniazko testuan, 9. orriko lehen zutabean, ondokoa dio: "Diecisiete. Adición de una disposición **ddicional** decimosexta." Horren ordez, hau

esan behar du: "Diecisiete. Adición de una disposición adicional decimosexta."

Gaztelaniazko testuan, 10. orrialdeko lehen zutabean, esan beharrean "**Veintiuna**...", esan behar du "**Veintiuno**..."

Gaztelaniazko testuan, 11. orrialdeko bigarren zutabean, 4.2 artikuluko 1. idatz-zatian, ondokoa dio: "25.1... del Impuesto sobre **Trasmisiones** Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados." Horren ordez, hau esan behar du: "25.1... del Impuesto sobre **Trasmisiones** Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados"

Gaztelaniazko testuan, 22. orrialdeko lehen zutabean, esan beharrean "**Uno**. Artículo 19.2.", esan behar du "Artículo 19.2"

Gaztelaniazko testuan, 22. orrialdeko lehen zutabean, ondokoa dio: "En este supuesto, la condición... que se inscriba la finca objeto de **trasmisión**..." Horren ordez, hau esan behar du: "En este supuesto, la condición... que se inscriba la finca objeto de **transmisión**..."

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ezkaibarteko Udalaren kiroldegiko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Ezkaibarteko Udalaren kiroldegiko obrei buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Ezkaibarteko Udalaren kiroldegiko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (3. or.).

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Alderdirik garrantzitsuenen laburpena (4. or.).
- III. Helburua (6. or.).
- IV. Norainokoa eta mugak (6. or.).
- V. Ondorioztapen orokorra eta gomendioak (7. or.).
- VI. Iruzkina eta ondorioztapenak (8. or.).

Ezkaibarteko Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (12. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (23. or.).

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA

Comptos Ganberak Ezkaibarteko kiroldegiko obren exekuzioaren fiskalizazioa egin du. Ezkaibarte udalerrira mugakide da Iruñearekin, eta, 2008ko urtarrileko erroldaren arabera, 1.637 biztanle dauka.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak diruz lagundutako obra da, eta 2005ean hastekoa zen. Irailean, udalak erabaki zuen kokalekua aldatzea, eta, lursailak lortzeko, jabeekin hitzarmen bat sinatu zuen, eta horren truke hirigintza-apro-

betxamenduko unitateak esleitu zituen, zeinak udal planaren hurrengo berrikuspenean aintzat hartuko baitira.

Azterturiko datuen arabera, kiroldegia-ko kostua, lursaila kontuan hartu gabe eta BEZa kanpo utzita, 2.927.252 eurokoa izan da.

Hasierako aurreikuspenekiko desbiderapena, lursaila kanpo utzita, honakoa da:

– Hasierako oroitidazkiko zenbatekoarekin alderatuta (ez zen urbanizaziorik aurreikusten, beharrezkoa ez zelako): % 37

– Urbanizazio-gastuen eragina kontuan hartzen badugu: % 16

– Oinarrizko proiektuarekiko: % 14

Txostenaren arabera, aztertu diren espedienteak indarreko legediari jarraituz bete dira; nolahi ere, honako bi zehaztapen hauek egiten dira:

– Proiektu-prestaketaren eta obra-zuzendari-tzaren esleipen-hartzaile den lan-taldeko kideetako bat zela udalaren aholkulari gisa zerbitzu-errentamenduko kontratu baten bidez kontraturiko arkitektoa.

– Lursailak okupatzeko erabilitako prozedura, aldeztatik haien balioespena zehaztu gabe.

Comptos Ganberak gomendatzen du administrazioek inbertsio jakin batzuei ekin aurretik etorkizuneko bideragarritasunari buruzko planak egin ditzatela eta azter dadila komeni ote den plantillak egokitzea zerbitzu jarraituak eta mugagabeak ematearen ondoriozko beharrezkoak, xede horrekin lanpostuak sortuz eta beharrezko iraunkorren ondoriozko zerbitzuak denbora-mugarik gabe kanpoan kontratatzea saihestuz.

I. SARRERA

2008ko irailaren 12an Nafarroako Comptos Ganberan sartu zen Ezkaibarteko Udalaren idazki bat, 2008ko uztailaren 28ko Osoko Bilkuran one-

tsitako eskabide bat helarazten zuena, zeinaren bitartez Comptos Ganberari kontu-espeditentea bidaltzen baitzitzaion, txostena egin zezan, kiroldegiko obrak egitearen ondorioz ustez gertaturiko aurrekontu-desbiderapenagatik.

Irailaren 16an udalari jakinarazi zitzaion ezinezkoa zela 2008. urteko programan eskaera horri tokia uztea, eta eskaera hori aintzat hartuko zela, etorkizuneko ekitaldietako lan-programan sartzeko.

2009rako lan-programan txertatu da Ezkabarteko Udaleko kiroldegiko obrak egiteari buruzko fiskalizazioa egitea. Udallerri hori mugakide da Iruñearekin. Zortzi kontzejuz eta entitate txikiagoz osatuta dago, eta, 2008ko urtarrilaren 1eko errol-daren arabera, 1.637 biztanle dauzka. Horietatik, 993 dira Arre kontzejukoak.

Lana talde batek egin du, urtarriletik apirilera bitartean; taldea osatzen zuten auditore batek eta auditoriako bi teknikariek. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, alderdirik garrantzitsuenen laburpen

bat eskaintzen da; hirugarrenak eta laugarrenak aurkezten dituzte helburuak, norainokoa eta mugak; ondorioztapen orokorra bosgarrenean dago, eta seigarrenean sakondu egiten da adierazitako iruzkin eta ondorioztapenetan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ezkabarteko Udaleko langileei, lan hau egitean eman diguten laguntzarengatik.

II. ALDERDIRIK GARRANTZITSUENEN LABURPENA

1. Ezkabarteko Udalak, 2004ko martxoaren 30ean eginiko bileran, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin izandako elkarrizketak kontuan harturik, honako hau erabaki zuen, aho batez:

- “Kiroldegiaren kokalekua onestea: udalaren jabetzako lursail bat, Orikainen dagoena.
- Udalaren teknikariari balioespen-oroitidazki bat eskatzea”

2. 2004ko martxoan, balioespen-oroitidazki bat aurkeztu zen, bi arkitekto izenpetua (haietako bat udalaren aholkularia zen), Orikainen kokaturiko eta 2.205 metro koadroko azalera kiroldegi baterako. Hona xehakapen ekonomikoa:

Betetzea (%)	1.740.000
Ordainsariak	156.000
Altzariak	240.000
	2.136.000
BEZa	341.760
Guztira	2.477.760

3. 2005eko otsailaren 28an, 27/2005 Foru Agindua onetsi zen, zeinean ezartzen baitira kirol-instalazioen arloko inbertsioak egite aldera toki entitateei zuzendutako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak.

4. 2005eko martxoaren 1ean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak jakinarazi zuen “deialdian parte hartu ahal izateko nahitaezko baldintza”

izanen zela “obra-espeditentek 2005. urtean hastea”

5. 2005eko maiatzaren 2an, Nafarroako Gobernuaren erregistroan eskakizun bat aurkeztu zen, laguntza-deialdian parte hartu ahal izatera bideratua. Eskabide horri erantsi zitzaizkion lehen aipaturiko balioespen-oroitidazkia, lursailen eskuragarritasunari buruzko ziurtagiri bat eta obren finantzaketa-plana. Plan horretan:

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	1.238.880
Funts berekiak	638.880
Kreditu eragiketak	600.000
Aurreikusitako kostua, guztira	2.477.760

6. 2005eko maiatzaren 17an udalak erabaki zuen obraren finantzaketa-plana aldatzea. Ondorioz, horrela geratu zen:

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	650.000
Hirigintza-aprobetxamenduak	940.000
Kreditu-eragiketak	887.760
Guztira	2.477.760

Aprobetxamenduen ordez, Ezkabarteko industrialdeko 4.104,96 metro koadroko lursail bat saldu zen; hortik eskuratutako dirusarrerak kirol-instalazioen finantzaketarako erabiltzea erabaki zen.

7. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 8ko 488/2005 Ebazpenak, betiere Toki Administrazio kirol Departamentuak deialdiko oinarrietan ezarrita dauden bideragarritasun-txostenak prestatu eta gero, besteak beste Ezkabarteri 650.000 euroko dirulaguntza eman zion, zeinak egiten baitu diruz lagundu daitekeen moduluararen (1.300.000) ehuneko 50, aurrekontua 2.477.760 eurokoa izanik.

8. Udalaren 2005eko irailaren 16ko ohiz kanpoko bilkuran, "kontuan izanik Ezkabarteri buruzko azterlan estrategikoa aurrera eramaten ari den enpresak azterlan eta txosten berri bat egin ondoren ikusi dela eraiki nahi den kiroldegiaren kokalekua aldatu beharra dagoela, apirilean behin betikoz onetsitako hirigintza-planak horrelako instalazioetarako erreserbatzen zituen lursail bat batean kokatzeko, lursail horiek askoz ere egokia-gotzat jotzen baitira, hala beren kokalekuagatik nola hedatzeko eskaintzen duten posibilitateagatik, udalak aho batez erabaki du Ezkabartek etorkizunean izan beharreko kirol-instalazioak Azozko poligonoko 190. lursailean eta Orikaineko 12. poligonoko 350. lursailean kokatzea, eta aipaturiko obra exekutatzeko lursail horien urbanizaziotik erator litezkeen aurrekontu-aldaketak onartzea."

9. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 11ko 672/2005 Ebazpenaren bidez, dirulaguntzaren aurrerakin bat eman zen, 241.788 eurokoa, hilabete epean honako hauek aurkeztearen baldintzapean:

- Zuzendaritza fakultatiboaren izendapen-akta.
- Zuinketa-akta.
- Entitatearen erabakia, zeinaren bidez bere gain hartzen baitu obrak finantzatzeko konpromisoa, are aurrekontuaren gainetik sor litezkeen gainkostuak.

Dokumentazioa 2006ko urtarrilaren 19an aurkeztu zen.

10. 2005eko azaroaren 15ean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak zenbait iruzkin tekniko aurkeztu zizkion 2005eko azaroaren 3an aurkeztu-

riko proiektu teknikoari, bai eta lursail berrien jabetza eta indarreko hirigintza-araudiaren betetzea frogatzen dituen ziurtagiria bidali beharra adierazi ere.

11. 2005eko abenduaren 2an hitzarmen bat sinatu zen udalaren eta kiroldegia eraiki nahi deneko lursailen jabeen artean. Lursail horien azalera 10.458 metro koadrokoa da.

Hitzarmen horren arabera:

- Finka horien okupazio goiztiarra baimentzen zen, frontoidun kiroldegia eraikitzeko xede soil eta bakarrarekin.

- Udalak konpromisoa hartzen zuen okupaturiko finka Udal Planaren hurrengo berrikuspenean sartzeko, eta han berriro ere bere aprobetxamendua sortzeko, sistema orokor gisa, zehaztu beharrekoa den bizitokitarako lurzoru urbanizagarriaren banaketa-areari atxikitako sistema orokor gisa eta finkaren kokalekutik hurbilen dagoen erabilera honetako sektorean, halako moldez non jabeek gauzatu ahalko baitituzte beraiei dagozkien bizitokitarako hirigintza-aprobetxamenduak.

Udalaren planeamenduak lursail horiek ez urbanizagarri gisa sailkatzen zituenez gero, lursail horiek ezein banaketa-areari atxiki gabe zeuden; horregatik, soilik nahitaezko desjabetzaren bidez lor litezke; hots, ezein alderdiri interesatzen ez zaion sistema baten bidez. Lehenago, jabeek errekurso bat irabazia zeukaten, lursailari sistema orokorretarako urbanizagarri izaera eman ziona.

Lursail horiei aplikatzekoa den gutxieneko aprobetxamendua kalkulatu da kontuan harturik lursailetatik hurbil dauden lurzoru urbanizagarrien planeamendu indardunean ezarritako aprobetxamenduen batez besteko balio haztatua (0,6788); horren emaitza da, guztira, hirigintza-aprobetxamenduko 6.389 unitate (10.458 x 0,6788 x 0,9).

- Bi alderdiek adosten dute ezen, lau urteko gehieneko epean (zeina 2009ko urriaren 30ean amaitzen baita) Udal Planaren berrikuspenak hasierako onespina emana izanen ez balu, edo bost urteko epean behin betiko onespenean izanen ez balu, halako moldez non kasuko finka atxikia bailegokoen lurzoru urbanizagarriaren sektore bati, kasu horretan, jabeetako edozeinek, nork bere kasa nahiz batera, honela jokatzeko aukera izanen baitute:

√ Aprobetxamenduaren hartzekodun gisa jarraitu, itunduriko baldintzetan.

√ Edozein unetan eskatzea finka desjabetua izan dadin, balioespenaren ondorioetarako honako sailkapenarekin: bizitokitarako lurzoru urbanizagarri sektorizatu eta ordenatua. Aprobetxamendua litzateke berrikuspen-planean jasotakoa, edo, horrelakorik ezean, berrikusitako planeko gainetako sektoreen aprobetxamenduaren batez bestekoa, eta, gutxienik ere, 0,6788ko aprobetxamendutasa.

12. Jarraian adierazten dira obra honekin zerikusia daukaten egitate nagusien datak:

2005-09-16 Proiektua idazteko baldintza-orrien onespena.

2005-10-21 Proiektuaren kontratua.

2005-11-15 Proiektuaren oniritzia eta obraren baldintza-orrien onespena.

2005-12-20 Obraren kontratua.

2006-10-17 Urbanizazio-proiektuaren esleipena.

2006-12-19 Urbanizazio-obraren esleipena.

2007-05-07 Instalazioen erabilera.

2007-07-02 Obra-harrerako akta sinatzea.

2007-09-19 Pistaren egoerari buruzko txostena, zeinak honakoa baitio: "pistaren gaur egungo egoerak ez ditu betetzen, guk deritzogunez, proiektuko gutxieneko baldintzak harrera egin ahal izateko; horrenbestez, zola aldatu beharko da, edo, bestela, pista guztiaren gainazala konpondu."

Zenbait negoziazioen ondoren, 2008ko uztailan erabaki zen zola ez altxatzea eta asfalto leunduaren bitartezko soluzioa ematea. Esleipen-hartzaileak 30.000 euroko kostua hartzen du 41.055 euroko (BEZik gabe) guztizko kostutik, eta bien arteko aldea udalak hartzen du bere gain.

2009-02-05 Udaleko Osoko Bilkurak onetsi egin zuen lurralde-okupazioko eredia eta estrategia.

13. 2008ko irailaren 18an, Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharbertzeko Iruñerriko Bulegoak, udalaren eskariz, hirigintza-txosten bat eman zuen, lursailaren jabeekin sinaturiko hirigintza-hitzarmenari buruzkoa.

Txostenean, bulego horrek honakoa zioen:

• Aprobetxamendu-tasaren kalkulua egokitatzat jotzen da.

• Lursail-azalaren kalkuluan errore-txiki bat detektatu da. Lurzati-zedulen datuak hartzen badira, aitorturikoak baino 112,25 hirigintza-aprobetxamenduko unitate gutxiago dira.

• Udal plan berriaren onespenepean bete ezin izatearen kasurako alternatibei dagokienez, jabeek hautua egin ahal izanen dute: monetarizazioa (desjabetzea) edo, gaur egun bezala, aprobetxamenduaren hartzekodun-egoera mantentzea. Txostenak adierazten du monetarizazioak ekarriko lukeela "udalak bere gain hartu ezineko kostu ekonomikoa," eta balizko soluzio gisa iradokitzen du aprobetxamendua gauzatzea gaur egungo Udal Planaren alorretan, aprobetxamenduaren ehuneko 10aren kargura, udalari dagokiona.

14. Txostenaren prestaketan zehar jakin dugu eraikitzaileak demanda bat aurkeztu duela Nafarroako Administrazio Auzitegian, berandutza-interesak eskatzeko eta, berak dioenez, lehen aipaturiko negoziazioen ondoren ordaintzeke gelditu zen kantitate bat ordain zekion.

III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Ezkabarteko Kiroldegiaren eraikuntzaren fiskalizazioa egin dugu.

Gure lanaren helburuak hauexek dira:

• Obra horren kostua eta hasierako aurreikuspenarekiko desbideraketa zehaztea.

• Kiroldegia eraikitze aldera eginiko jarduketak indarreko araudiaren arabera ote diren aztertzea.

IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Aurkezturiko helburuak kontuan hartuta, gure lanak ardatz gisa hartu du kiroldegiaren eraikuntzari buruz udaletxean dagoen dokumentazioa aztertzea.

Udalak ez zeukan dokumentazio guztia jasotzen zuen espediente bakar bat, baizik eta dokumentazio hori zenbait espedientetan sakabanatuta zegoen. Horrela, honako hauek aztertu ditugu:

• Nafarroako Gobernuak kiroldegirako emandako dirulaguntza.

• Lursaila erosteko hirigintza-hitzarmena.

• Obra-proiektuaren eta –zuzendaritzaren kontratua.

• Obraren kontratua.

• Ukitutako eskubide eta ondasunak.

- Urbanizazio-obraren proiektuaren eta haren zuzendaritzaren kontratua.

- Urbanizazio-obraren kontratua.

- Transformazio-zentrorako proiektuaren kontratazioa.

- Transformazio-zentrorako kontratua.

- Kalteen analisia.

- Ekipamendua.

- Proiektuaren finantzaketa.

Kiroldegia eraiki den lursaila erosteko sinaturiko hitzarmena baldintzapetuta dago Udal Plana onesteari; horrelakorik ezean, jabeek alternatiba ezberdinak dituzte.

Horregatik, eta hitzarmenean lursailen truke hirigintza-aprobetxamenduko unitateak esleitzegatik, diruz balioetsi gabe agertzen direnak, ezinezkoa da lurzorua balioespen zehatza jakitea.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta -arauei jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

V. ONDORIOZTAPEN OROKORRA ETA GOMENDIOAK

Obra honen egitea honako faktoreek baldintzatu egon da:

Kiroldegia	2.087.492
Urbanizazioa.	370.404
Ekipamendua	171.307
Bestelako gastuak	123.046
Ordainsariak	175.001
Guztira	2.927.252

- Obraren desbideraketa, lursailaren balioa aintzat hartu gabe, zenbait hipotesiren arabera egin behar da. Horrela, oroitidazkian aurreikusitako zenbatekoarekin –hots, udalak onetsitakoa–, aldea ehuneko 37koa da, gaineko aldetik. Kontuan hartzen badugu oroitidazkian ez zela urbanizazioa aintzat hartzen, hasierako kokalekuan horren beharrik ez baitzegoen, aldea ehuneko 16koa da.

- Oinarrizko proiektuarekin alderatuta, desbideraketa ehuneko 14koa da.

- Oro har, aztertutako espedienteak exekutatu dira indarreko araudiari jarraikiz, honako zehaztapenak zehaztaperen:

- Abuztuaren 8ko ebazpenaren bitartez, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak dirulaguntzak eman zituen, eta obra-espedienteak 2005ean hasi behar zirela ezarri.

Kokaleku-aldaketak eta proiektuak egin gabe egoteak erabaki-hartzea lasterragotu ahal izan dute; izan ere, dirulaguntza ez bada jasotzen, inbertsioa ez da egiten. Egoera horretan, presazko bidetik esleipenak egin, edo lurzoria erosteko hitzarmena negoziatu da.

- Udalak erabakitako kokaleku berrigatik, eta egoera ekonomikoan izandako aldaketarengatik (udalaren hirigintza-garapena motelduko duena), kiroldegirako sarbideak deserosoak gertatzen dira. Kokaleku hori biztanle askok eztabaidatzen dute, herrigune handiagoetatik hurbilago egotea nahi baitzuten.

- Litekeena da lursailak erosteko presak behar izana hitzarmen bat sinatzera, zeinean lursailak ematen baitziren hirigintza-aprobetxamenduko unitateen truke. Egoera ekonomiko orokorrean izandako aldaketak eragin lezake udalak desjabetzapenaren bidetik ordaindu behar izatea lursailaren balioa, zeina zehaztu gabe geratu baitzen.

Comptos Ganberak eginiko lanetik honako ondorioztapen orokor hauek iristen dira:

- Kiroldegiaren eraikuntzaren zenbatekoa, lursaila kontuan hartu gabe eta BEZa kanpo utzita, honakoa da:

√ Hirigintza-arloko aholkulariak proiektuaren idazketaren eta, geroago, obra-zuzendaritzaren esleipen-hartzaile suertaturiko lan-taldeko kide gisa jarduteak pribilegiozko posizio bat sortu ahal izan du, bai eta bi kontratuen artean interes-gatazka erakarri ere (obra-zuzendaritza eta aholkularitza).

√ Lursailak okupatzeko prozedura egokia desjabetzearena zen, eta lursailen balioespena aldezturitik zehaztu beharko zen.

Eginiko lanean oinarriritik, izaera orokorreko bi gomendio egin nahi ditugu:

* *Gomendatzen dugu hala Foru Administrazioak nola toki administrazioek azter dezaten etorki-*

zuneko bideragarritasun-planak aurretiaz egitearen nahitaezkotasuna, inbertsio jakin batzuei ekiteko asmoa dagoenean. Logikoa da herritar guztiek nahi izatea beren bizitokitik hurbilen edukitzea ahalik eta zerbitzu gehien; are gehiago biztanleria gehitzeko aurreikuspenak zeudenean; baina, gure aburuz, alde aurretik aztertu behar dira dauden alternatibak, gogoan izanik eskala-ekonomiek eskaini ahal duten balizko abantaila ekonomiko eta zerbitzu-abantaila.

Gainera, gogoan izan behar da ezen, kasu askotan, dirulaguntza bat lortzeak behartu egiten dituela toki entitateak inbertsioa egitera, nahiz eta, kasu honetan bezala, bukaerako zenbatekoaren ehuneko 21 bakarrik izan, eta kontuan hartu gabe inbertsioaren gainerakoa finantzatu ahal izateko, bere funts berekiak erabili behar dituela edo, bestela, zorpetzera jo.

** Administrazio eskudunei gomendatzen diegu azter dezatela, legeei hobeki egokitzearen eta efizientzia eta ekonomia erdiestearren, zerbitzu jarrai eta mugagabea ematearen beharrezan plantilla organikoa egokitzearen komenigarritasuna, plantillan udal arkitekto lanpostuak sortuz edo zerbitzuak beste entitate batzuekin mankomunatu (beste lanpostu batzuekin egiten den bezalaxe), eta horrela saihestuz udalen beharrezan iraunkorrei dagozkien zerbitzuak edo eginkizunak denboramugarik gabe kanpoan kontratatzea.*

VI. IRUZKINAK ETA ONDORIOZTAPENAK

Nafarroako Comptos Ganberak eginiko lanetik eratorritzen diren ondorioztapenei ekin aurretik, komeni da obra honetako espediente ezberdinak kudeatu diren moduari buruzko zenbait datu eta informazio agertzea.

Proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren esleipena, bai eta obraren esleipena ere, egin ziren lehiaketa-prozedura irekiaren bidez, aurretiazko presadierazpenarekin, era horretan Nafarroako Gobernuak adierazitako epea betetzeren.

Proiektuaren lizitazioa bi eskaintza aurkeztu ziren, eta irabazle suertaturikoa bulego profesional batena izan zen, non bazkide baita zerbitzu-errentamenduko kontratu baten bitartez udalari aholku ematen dion arkitektoa, oroitidazkia prestatu zuena.

Obraren kontrataziorako bi eskaintza ere aurkeztu ziren. Esleipen hori eraikinarena da soilik; urbanizazioari dagokiona, bereizitako beste esleipen baten xedea da.

Kiroldegia egiten amaitutakoan, pistaren zolan zenbait akats aurkitu ziren, eta, horregatik, haren orde bestea bat jartzea edo konpondua izatea proposatu zen.

Zenbait txosten teknikoren ondoren, bai eta eraikitzailearen eta udalaren artean elkarriketak izan ondoren, "asfalto leunduzko zorua ipintzea" hautatu zen; hobekuntzat jotzen zen, eta horren gastuak elkarbanatu egin ziren esleipen-hartzailearen eta udalaren artean. Lehenak 30.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuen; gainerakoa, udalaren bere gain hartuko zuen. Horregatik, udalak bere gain hartu zuen 11.056 euroko kostu handiago bat.

Proiektua, obra-zuzendaritza eta urbanizazio-obra esleipen-hartzaile berei esleitu zitzaizkien, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, Kontratuari buruzko Legeko 73. artikulua-aren babespean, zeinak aukera hori ezartzen baitu obra (zerbitzu) "osagarri edo lagungarrietan, esleitutako proiektuan sartuta ez badaude eta ezusteko inguruabarren ondorioz behar-beharrezkoak badira kontratu nagusia ongi bete ahal izateko..."

Ekipamenduaren esleipena lehiaketa bidez egin zen, prentsan publizitatea duen prozedura negoziatuaren arabera, eta presako izapidetzearekin.

Sortak, bai eta aurkeztutako eskaintzak ere, taulan ikus daitezke:

Sorta	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Eskaintza kopurua	Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe
Bulego-altzariak	8.000	1	6.187
Komun-ontziak	8.450	3*	5.153
Kirol-ekipamendua	42.200	1	42.185
Saunak	5.950	2	5.200
Ikus-entzunezkoen elementuak	29.000	1	29.000
Jarduera gidatuen aretoa	73.000	4	64.227
Guztira	166.600		151.952

*Eskaintza bat ezetsi egin zen, lizitazioaren zenbatekoa gainditzeagatik.

Ekipamenduak amaieran izandako kostua 171.3007 eurokoa izan zen.

VI.I. KOSTUARI ETA FINANTZAKETARI BURUZ

1. Kiroldgia eraikitzearen kostuak ez du barruan hartzen lursailen kostua; azken horiek, hirigintza-hitzarmen bat tarteko eskuratu ziren, zeren

Lursailak saltzea	1.233.804,92
Mailegua	1.200.000,00
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren dirulaguntza	650.000,00
Guztira	3.083.804,92

3. Lursailak aintzat hartu gabe, eginiko inbertsioaren kostua, BEZa kanpo, honakoa da:

Obrak (eraikuntza, urbanizazioa eta abar)	2.580.943,53
Ekipamendua	171.307,09
Ordainsariak	175.001,21
Guztira	2.927.251,83

Obretan sartzen dugu, soilik, zola-konponketengatik udalak jasan duen parte, zenbatu gabe akats horiek konpontze aldera eraikitzaileak egingdako 30.000 euroko ekarpena.

	Oroitudakia	Betetzea	Aldaketa (%)
Kiroldgia	2.136.000	2.484.500	16
Urbanizazioa.		442.757	
Guztira	2.136.000	2.927.252	37

Honela xehakatzearren arrazoa da hasierako kokalekuan ez zegoela urbanizatu beharrik.

2.136.000 euroko zenbateko hori da, dagokion BEZarekin batera, 2.477.760 euro egiten duena, eta erabili dena bai udalak gastuak onestean bai

eta, txosten hau idazteko unean, ezinezkoa baitzen doitasunez zehaztea kontraprestazio gisa emandako hirigintza-aprobetxamenduko unitateen kostua.

2. Inbertsio horren finantzaketa honela egin da:

4. Dirulaguntza-eskaera egiterakoan kalkulaturiko aurrekontuarekiko desbideraketa (bidenabar, gogorarazi behar dugu hasierako proposamena Orikainen egitekoa zela, eta ez Azotzen, hots, azkenean eraiki den tokian) honelakoa da:

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren dirulaguntza eskatzean.

5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuan 2005eko azaroaren 3an aurkezturiko oinarritzko proiektuarekiko desbideraketa honako taula honetan ikus daiteke:

	Oinarrizko proiektua	Betetzea	Aldaketa (%)
Kiroldegia			
Obrak	2.011.245	2.014.687	
Handitzea		52.552	
Zola		11.056	
Kalte-ordainak		9.198	
Kiroldegia, guztira	2.011.245	2.087.492	3,80
Urbanizazioa.			
	203.000	370.404	82,50
Ekipamendua	194.000	171.307	-11,70
Transformazio-zentroa		36.348	
Askotarikoak			
Azterlan geoteknikoa		2.480	
Informatika eta bestelako instalazioak		47.296	
Ekipamenduak		11.025	
Bestelako osagarriak		6.332	
Hasierako zenbait gastu		19.565	
Askotarikoak, guztira		86.698	
Obra, guztira.	2.408.245	2.752.250	14,2
Ordainsariak	162.200	175.001	7,9
Guztira	2.570.445	2.927.252	13,9

*Udalak ordaindutakoa soilik jasotzen du

6. Laburbilduz, hasierako oroitidazkian eginiko kostu-kalkulari dagokionez, zeinak obra Orikinen egitea aurreikusten baitzuen, ehuneko 16ko desbideraketa gertatu da, eta urbanizazio-obra ere kontuan hartzean –oroitidazkiak ez zuten halakorik jasotzen–, ehuneko 37raino igotzen da.

2005eko azaroko oinarrizko proiektuarekin alderatuta, desbideraketa ehuneko 13,9koa da.

Ezein kasutan ez da kontuan hartzen lursailek etorkizunean erakarriko duten kostua.

VI.2. ERAGIKETAREN LEGEZKOTASUNARI BURUZ

7. Badago proiektu honen kudeaketan eragina izan duen faktore bat, eta da Nafarroako Gobernuak exijitu izana obra-espeditenteak 2005. urtean hastea; horrek, kokaleku-aldaketarekin batera, espeditentea presaz kudeatzera behartu du.

8. Oro har, aztertutako espeditenteak exekutatu dira indarreko araudiari jarraikiz, honako zehaztapenak zehaztaperen:

a) Kiroldegia finantzatzeko asmoz saldutako lursaila udalarena zen % 93,76an, eta gainerakoa, Orikaingo Kontzejuarena. Salmentarako tasazioa udaleko arkitektoak egin zuen, eta lau erosleekin akordio bat lortu zen, zeinean ezarritako prezioa metro koadro bakoitzeko 300,5 eurokoa baitzen.

Kontzejuari hitzarmen horren berri eman ondoren, kontzejuak tasazioa berrikusi eta bere ehuneko 6,24rako prezio gisa ezarri zuen 432,49 euro metro koadro bakoitzeko, zeina onartu egin baitzuten erosleek.

Ondasunaren jabetza nahitaezko lagapenen ehuneko 10aren ondoriozkoa denez gero, ondasuna udalaren lurzorua ondasuneko parte da, eta horregatik, lehenik eta behin, lizitazio publiko bitartez besterendu behar zen.

b) Kasuren bat aurkitu da, zeinean unitate berriak gehitzen edo daudenak aldatzen baitira, kontratu-aldaketako espeditenterik egin gabe, eta, kasu batzuetan, ez da kontraturik formalizatu.

c) Kontratuen Legeko 73. artikulua ezartzen duen aukera, ezusteko gertakarietarako pentsatua, erabiltzea zertarako eta urbanizazio-obrak esleitzeko, ez zaigu egokia iruditzen. Egia da, bai, urbanizazioa ez zela hasierako esleipenean sartuta egon, baina ezin da ezustekotzat jo.

d) Ekipamendu-hornidurako baldintza-orrien arabera, seigarren zenbakiko sortaren esleipenak, ikus-entzunezkoetarako ekipamenduei zegokienak, garraioa eta instalazioa aurreikusten zituen. Bada, esleipena egin zen kontuan hartu gabe eskaintzak ez zuela instalazioa ere hartzen; hori dela-eta, 9.426 euro gehigarri ordaindu dira. Zen-

bateko horrekin, eskaintzak gainditu egiten zuen lizitazio-prezioa.

e) Udalak ez duenez udal-arkitekto, lanak egiten ditu zerbitzu-errentamenduko kontratu baten bitartez 1998z geroztik kontrataturiko arkitekto batek. Arkitekto horrek, aholkulari gisa, lehiaketarako oinarri gisa harturiko balioespen-oroitidazkiaren prestaketan parte hartu zuen. Lehiaketako irabazle suertaturikoa izan zen udal-aholkularia bera kide zeneko lan-talde batek aurkezturiko eskaintza.

Gure iritziz, aurretiazko prozesuetan parte hartu izanak pribilegiozko posizioa ematen zion, balizko beste lizitatuak batzuen aldean. Halaber, obra-zuzendaritzaz arduratzeak talka egin dezake, edo interes-gatazka sortu, udal-aholkulari gisa betetzen dituen kontrol- eta ikuskapen-eginkizunekin; horrenbestez, aplikagarria litzateke 1998ko Kontratuen Legeak (orduan indarrean zegoenak) 30. artikuluan xedatzen zuena.

Jarduketa horrek kontra egiten dio gaur egun indarrean dagoen 2006ko Kontratuari buruzko Legeko 20.3 artikuluari, zeinak lizitazio-prozeduran parte hartzeko debekua ezartzen baitu kontratuen zehaztapen teknikoaren ezarpenean esku hartu duten enpresentzat, bai eta horiei lotutako enpresentzat ere.

Bestalde, ohartarazi behar da aipaturiko aholkularitza-kontratua 2007ko irailean desegin zela, interesatuak berak horrelaxe eskatuta.

f) Sistema orokor, ekipamendu edo dotazioetarako lursailak aurretiaz lortu ahalko ziren desjabetze edo zuzeneko okupazio bidez.

Zuzeneko okupazioko prozedura erabiltzeko, beharrezkoa da, aurretiazko betekizun gisa, soberakin den exekuzio-unitate bat edukitzea, banaketa-arearen beste batean.

Aztertutako kasuan, soluzio hori aukeratu ezin zela deritzogu, lursailak ez baitzeuden ezin banaketa-areari esleituta. lursailak eta aprobetxamen-

duak ezin ziren behar bezala balioetsi, eta ez zegoen ere, antza, beste banaketa-arearen batean soberakin zen inolako exekuzio-unitaterik, haiek lekualdatzeko modurik ematen zuenik.

Udalak aukeratu du hitzarmenaren figura erabiltzea lursailak garaiz aurretik lortzeko, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 188. artikuluan ezarritakoarekin kideturiko prozedura bat erabiliz.

Prozedura honi jarraitu zaio arauak sistema orokorretarako lursailak garaiz aurretik lortu ahal izateari dagokionez ezartzen dituen aurrebaldintzak bete gabe, eta ez dago, hortaz, lursailari buruzko peritu-balioespenik. Horrela, ezezagunak dira okupazio goiztiarraren kostua, aprobetxamenduen kokalekua zein izan daitekeen, eta aprobetxamenduengatik udalak bere gain hartutako ordainketa-betebeharren neurria eta norainokoa.

Desjabetze-prozedurari jarraitu izanez gero, okupazioa baino lehenago ondasunen balioespena ezarri beharko zen: era horretan, segurtasun handiagoa emanen zitzaion prozedurari.

Baldin eta planeamendu-aldaketatik eratorritako aprobetxamendu-tasa txikiagoa bada aurreko planeamenduan ezarritakoa baino, auzitan jartzeko modukoa da hitzarmeneko soluzioa, ezartzen duena aldea ordaintzea udalaren lurzoru-ondasuneko osagai izan behar duten dirusarrera edo ondasunen kargura.

Gainera, gogorarazi behar dugu ezen, 2009ko urrirako ez balitz erabakiko udal-plana bidaltzea, edo bost urteko epean behin betiko onespina oraindik eman gabe balego, lurzoruen edozein jabe aukeratu izanen lukeela aprobetxamenduen hartzekodun gisa segitzea nahiz desjabetzea eskatzea.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

EZKABARTEKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURI- KO ALEGAZIOAK

Ni, Carola Gutiérrez Collazos, Ezkabarteko Udalaren ordezkari gisa jardunez, Nafarroako Comptos Ganberari agertzen natzaio eta, zuzenbidean egokien den moduan, honakoa ESATEN DUT:

2009ko uztailaren 20an Ezkabarteko kiroldegiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso dudala, eta emandako epean, eta aipaturiko egunean Comptos Ganberako lehendakariak emandako ebazpenari jarraikiz, honako alegazio hauek aurkezten ditudala:

LEHENA.- KIROLDEGIKO OBREN KOSTUA.

A) Txosten exekutiboan, 3. orrialdean, kiroldegiaren kostua 2.297.252 eurokoa dela esaten da, baina egiazki 2.927.252 euroko kopurua adierazi beharko litzateke, 11. orrialdean agertzen den bezala.

Orrialde berean honako hau esaten da: “urbanizazioa kontuan hartzen badugu: % 16, eta oinarritzko proiektuarekiko % 14”, desbideraketari dago-kionez. Hori ez da argi gelditzen.

II. 2 atalean, 5. orrialdean, ez da zenbatetsi 2004ko martxoko balioespen-oroitidazkia.

Laburbildurik, kiroldegiko obren kostuak udalarentzat neurrigabeko gorakada izan du, obraren desbideraketarengatik, aurreikusi gabeko urbanizazioarengatik eta aintzat hartu gabeko lursail-kostuengatik.

B) Lursailen erosketaren balioa zenbatetsi gabe dago hitzarmenaren sinaketa-egunean.

Alabaina, bertan jasotako oinarritzko eragiketetatik ondorioztatzen da prezio hori handiagoa dela merkatuko prezioa baino. Hirigintza-aprobetxamenduko 6.389 unitateak kopuru askoz ere handiagoa dira Azozko lursail urbanizagarrietako metro koadroaren prezioa baino.

Udal Planean, Azozko lursailek 500 metro koadro garbi izan behar dituzte eraiki ahal izateko; datu horiekin, eta kontuan harturik lurzati garbiek azalera gordinaren % 50 inguru egiten dutela, 10 etxebizitza bakarrik eraiki ahaliko ziren, 500 metro koadroko hamar lurzatitan, horretarako ipinitako 10.400 metro koadroetan; horietatik, lurzati bat udalaren jabetzakoa litzateke, nahitaezko lagapenaren ondoriozko % 10 bailegokioko.

Begi-bistan dagoenez, hirigintza-aprobetxamenduko 6389 unitateek, ikuspegi orokor batetik, eraikitzeo aukera hobea eta handiagoa ekartzen

dute, Azozko herrigunearekin mugakide diren lurzoruek ematen duten aukera baino askoz ere handiagoa.

Nafarroako Gobernuak, berak eginiko lurzoru-eskuratze publikoan Gendulainen 30 euro ordaindu zuen metro koadro bakoitzeko, etxebizitza eraikitzeo; beraz, inoiz ere ez zen planteatu beharko hori baino prezio handiagorik ordaintzea.

C) Kiroldegiaren guztizko kostua.

Kalkuluetan ez da aintzat hartu lursailen balioa, ez eta horiek erosteak, guztizko kostuak eta desbideraketak zenbateko aldea egiten duten oroitidazkian eta oinarritzko proiektuan jasotakotik.

Kiroldegiaren kokalekua aldatzearen erabakiak zuzeneko kaltea ekarri dio Ezkabarteko Udalari, kopuru handietan neurtzen dena.

D) Kiroldegiaren behin betiko kokalekua eta ondorioak

Udal Planak hirigintza-helburu gisa zehazten zuen kirol-ekipamendu publiko baterako lurzoru-erreserba. Erreserba hori lur-eremu zabal batez osatuta zegoen, ez-urbanizagarri gisa sailkatutakoa, nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitateertain kategorian, eta “1. area” izena zuen.

Zer esanik ez, eremu zabal hori guztia ez zen kirol-ekipamendutarako, baizik eta asmoa zen eremu horren barruan, tokiren batean, kirol-ekipamendua kokatzea.

Hasiera batean, kiroldegia Ezkabarteko udal-planean dotazio-lurzati gisa agertzen zen horretan eraikitzea proposatu zen; lurzati hori birzatiketa baten ondorioa zen, eta udalaren jabetzakoa. Lurzati hark beharrezko zerbitzu guztiak zeuzkan. Udalarekin zeukan muga, eta ibai-parkea pasata zegoen oinezkoen pasealeku batekin.

Kokaleku horrek modua ematen zuen ibilgailu motordunez, bizikletaz nahiz oinez iristeko bertara.

Gainera, berriki egindako plaza bat zeukan, bai eta zenbait ekipamendu, hala nola jatetxea eta hotel-azpiegitura berriei buruzko aurreikuspenak.

Kanpoko urbanizazioa jadanik burutua zegoen; horrenbestez, eraikinaren eta sarbideen arteko lotura-zoladurak egin beharra bakarrik zegoen.

Alabaina, kokalekua aldatzea erabaki zen, horrela kiroldegiaren aldamenen etorkizunean dotazio gehiago garatu ahal izate aldera.

Argudioa faltsua da, zeren eta 1. arearen aldaketa mugatu baitzen urbanizagarri bihurtzera kiroldegirako beharrezkoak ziren lurzatiak bakarrik, kokalekua aldatzea erabaki eta gero.

Udal-planean, kirol-ekipamenduak sistema orokor bat osatzen du.

Sistema orokorretarako beharrezkoak diren lurzoruak lortzeko jarduketa-sistema da desjabetzea edo udalarekiko hitzarmena.

Aurreikusitako sistema orokorretarako lurzorua hirigintza-hitzarmen bitartez lortzeak ez dirudi sistema egokia denik, hitzarmenaren xede diren hirigintza-instrumentuak izapidetzera mugatzen baita. Ezin da bermatu instrumentu horiek onetsiak izanen direnik, udalak ez baitauka horretarako eskumenik, eta sistema orokor horien beharra jadanik detektatuta dago. Honako afera hauek sortzen dira:

1. Nahiz eta kirol-instalazio publikoak behar ziren, xede horretarako egokitzat jotako lursaila ez zen urbanizagarri gisa sailkatu, eta ez zen banaketa-area desjarrai batean sartu. Planteamendu hori, adibidez, Arreko 3. arean gauzatu zen.

2. Lursailen jabeekin sinaturiko hitzarmenaren ondorengo aldaketak lurzoruaren sailkapena aldatu zuen, ez urbanizagarritik urbanizagarriara. Hori jatorriz ez zuen planak planteatu, eta posible izanen zen, adibidez, industrialdearen garapenaren gerizpera hori ekartzea.

3. Eraitza izan da udalak sistema orokor baterako lurzoruak eskuratzea etxebizitzarako lurzoru urbanizagarriaren prezioan, noiz eta, urbanizagarri gisa sailkatu izan balira, lagapen bidez lortu ahalko zirenean, hain zuzen ere udaletxearen atzean dagoen dotazio-lurzutiaren 3000 metro koadroak eskuratu ziren bezalaxe.

4. Sistema orokorrak dira hiri-garapena itxuratzeko duen hirigintza-antolamenduaren oinarritzko egitura orokorra eratzen duten funtsezko elementuen multzoa, ETA HORIEK EZINDU EDO BALDINTZATU EGITEN DUTE PARTIKULARREK LURZORUA IRABAZI-ASMOETARAKO ERABILTZEA, BIZTANLERIAREN INTERES OROKORRA DELA ETA. Kasu honetan, sistema orokor bat aurreikusia zeukaten lursail batzuen jabe diren partikular batzuek, ez beste inork, saldu diote lursaila udalari, eremu horretan posible diren prezioetatik onenean: etxebizitzarako lurzoru urbanizagarriarenean.

5. Ez da argi geratzen zergatik jarduketa proposatu zen lursail zehatz horietan. Hots, zergatik, 1. arean aurreikusitako metro koadroen andana izugarritik, zehazki horiexek hautatu ziren. Horiexek bezalaxe, berdin-berdin izan ahalko zen beste edozein.

6. 1. areako jabe ezberdinei lursailak erosteko eskaintza publikorik ez zen egin. Ez da agertzen

zergatik erabakia lursail zehatz horien aldekoa izan zen. Ba al dago txostenik lursail batzuek beste batzuekin alderatuta duten egokitasuna aurretiaz adierazten duenik? Berdin zion lursail bat nahiz beste bat aukeratu? Zer egokitasunen arbera egin zen aukera? Udala izan al zen berariaz bila ibili zena, ala jabeek eskaini zizkioten udalari?

Laburbilduz, lursail-eskuraketak ez zuen ezein lursail-erosketako edo -eskuraketako sistema araupeturik segitu, eta lehia askea nahiz herritarren berdintasuna urratu zituen.

BIGARRENA.- ERAGIKETAREN LEGEZKOTASUNA

Txosten exekutiboarekiko (3. orrialdea) desadostasuna agertu behar dugu. Bertan esaten da espedienteak indarreko legediaren arabera exekutatatu direla; baina txosteneko zehaztapenak oso garrantzitsutzat jotzen ditugu, eta jarduketaren legezkotasuna auzitan ipintzen dutela deritzogu. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoak:

A) Lurren jabetza.

27/2005 Foru Aginduaren bidez eginiko deialdian, honakoa agertzen da 1. eranskineko 4. atalean:

4. Dokumentazioa.

Eskaerak aurkezteko, eskabide orokor bat eginen da, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari zuzendua, eta honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) Balioespen-oroitidazki eguneratua, obra-espeditentea hastea ekartzen duten eskabideen kasuan. Oroitidazki hori sinatu behar du gai horretan gaitasuna duen teknikari batek, eta erantsiko du eraiki edo birmoldatu beharreko obrak agertzen dituen dokumentazio grafikoa, Idazkaritza Nagusi eta Azpiegituren Zerbitzuak azterketa eta balioespena egite aldera.

Eraikuntza-obren oinarritzko proiektu ikus-onesiarenean ale bat, obrak hasita edo are bukatuta egonez gero, baldin eta, aurretiaz, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Idazkaritza Nagusi eta Azpiegituren Zerbitzuak proiektu hori onetsi eta baimendu izan balu.

b) Obra egin nahi deneko lursailaren edo higiezinaren jabetza-ziurtagiria; halaber adierazi behar da obra bateragarria dela indarreko hirigintza-araudiarekin.

Kasuko lursail edo higiezinaren jabe ez izanez gero, 20 urtez beherakoa izanen ez den lagapenaren dokumentuaren fotokopia konpultsatua.

Eskabidea egiten duen toki entitateak erabile-ra-eskubidea soilik izanzen badauka, beharrezkoa izanzen da frogagiri bat eranstea, zeinean jabeak berariazko baimena ematen baitu obrak egiteko.

c) Ziurtagiri bat, zeinean agertuko baita aurreikusitako finantzaketari buruzko udal erabakia eta, kasua bada, kofinantzatzaile diren erakundeen erabakia; xehakaturata agertuko dira horietako bakoitzari dagokion kopuru aurreikusia, eta zehaztu beharko da ea ekarpena funts berekietatik, dirulaguntzetatik, kreditu finantzarioetatik edo bestetik datorren. Halaber zehaztuko dira obrak egiteko aurreikusi diren epeak eta, kasua bada, zenbait urtetarakoak diren obrei loturiko ekitaldi ekonomikoak.

d) Egin beharreko obra igeritoki estali baterakoa bada, bideragarritasun ekonomiko eta mantentimenduzkoaren plana, teknikari batek edo enpresa batek egina; bi kasu horietan, arloan gaitasun eta espezializazio frogatua dituena.

e) Azalpen-oroitidazkia, zeinean adieraziko baita zein diren egin beharreko jarduerak, aurreikusitako inbertsioaren eragina justifikatzen dutenak; halaber, zein giza baliabide eta baliabide ekonomiko diren beharrezkoak eraiki beharreko instalaziotik eratorritako zerbitzuen kudeaketarako, eta, kasua bada, herrian etorkizunean eraikitzekoak diren kirol-instalazioen planifikazioa, bai eta horretarako erreserbatutako lursailak ere.

f) Bestelako dokumentuak, baldin eta eskatzaileak bere eskaeraren mesedetan aurkezteko modukotzat jotzen baditu, foru agindu honetan adierazitako irizpide eta adierazleekin loturikoak.

II.5 atalean agertzen da 2005eko maiatzaren 2an aurkeztu zela eskabidea, eta harekin batera, oroitidazkia, finantzaketa-plana eta lursailen eskuragarritasunari buruzko ziurtagiria. Ziurtagirian aipaturiko lursaila ez da egiazki obra eginen deneko berbera. Hain zuzen ere, 8. atalean ohartarazten da udalak berak erabaki zuela kokaleku-aldaketa. Azterlan estrategikoaren ardura zeukan enpresak gomendatu zuen kokaleku-aldaketa. Enpresak kokaleku gisa gomendatzen zuen "apirilean behin betikoz onetsitako hirigintza-planak horrelako instalazioetarako erreserbatzen zituzten" moduko lursail dotazional bat. Planeamendu hori egiten ari zena zen, hain zuzen ere, kiroldegi-proiektua idazten ari zen eta udalaren aholkulari zen pertsona bera.

Horrek, de facto, aparteko hiru kuestio zekar-tzan, eta Nafarroako Gobernuak ez dauka horien berri: lehena, kiroldegiaren kokaleku aldaketa; bigarrena, obraren gainkostua (zeinaren berri ere ez baitzitzaien eman), hala lursaila erostearen

nola urbanizazio-kostuen ondoriozkoa; hirugarrenik, obraren kostua 2006ko ekitaldiko aurrekontuan sartu zen, 2005ekoan izan beharrean (2005eko aurrekontuan ez zen aldaketarik egin).

Izan ere, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak azaroaren 15ean eginiko eskaera baten ondorioz aurkeztua da dokumentazioa (10. puntua). Ustez, 2005eko abenduaren 2ko akordioa sinatu ondoren zen bidaltzekoa.

Kontua da dirulaguntza eman zela kiroldegia lurzati jakin batean egiteko, eta azkenean egin zela dirulaguntzaren ematean adierazitakoaz bestelako lurzati batean.

Foru aginduaren eranskinetako 7.6 artikulua urratu zen.

"7.6. Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak ezertan aldatzen badira eta, betiere, aldi berean haiekin ezin bateratu den beste dirulaguntzarik eskuratzen bada, aldatu eginen da haiek emateko ebazpena."

Hau da, aldatu egin zirenez bai kiroldegiaren kokalekua, bai urbanizazio-gastuak, bai eta lursailen erosketakoak ere, emate-ebazpena aldatu behar izanzen zen, bideragarritasun-txosten berri bat egin ondoren.

Gaur den egunean, Ezkabarteko Udala ez da oraindik lursailen jabe.

B) Bideragarritasun-txostenik eza.

Obra-egiteak urbanizazioarengatik eta lursail-erosketagatik izandako gainkostuari dagokionez, ez gaude txostenarekin ados, zeren eta Vi.2 atalean jaso beharko bailitzateke Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak urratu egin duela foru aginduko eranskinaren 7.1 artikulua.

"7.1. Behin-behineko erabaki proposamena: Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita bi hilabeteko epean, eta haien balorazioa egindakoan, Idazkaritza Orokorraren eta Azpiegituren Zerbitzuak, kontuan izanik Balorazio Batzordearen akta, dirulaguntzei buruzko behin-behineko ebazpen proposamena eginen du. Proposamen hori dirulaguntzaren eskatzaileei jakinaraziko zaie eta hamar egun balioduneko epea ezarriko da alegazioak aurkezteko.

Aldez aurretik Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak bideragarritasun txostena eskatuko dio Toki Administrazioiko Departamentuari, 120.202,42 eurotik gorako obra-aurrekontua izan eta dirulaguntza jaso duten toki entitateei dagokienez. Bideragarritasun txostena ezezkoa bada, toki entitate eskatzailea baztertu eginen da besterik gabe, eta erreserban gelditu dena proposatuko da.

Aipatutako agiriak goian esandako Departamentuari igorri eta handik hilabetera, eskatutako txostenak jaso ez badira, horien ordeztu Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak emandako txostenak hartuko dira kontuan.”

Kasu honetan, espedientean ez da agertzen aldeko bideragarritasun-txostenik, kiroldegiaren behin betiko kokalekuaren ingurukorik. Txosten hori Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eskatu beharko zukeen, eta, inondik ere, negatiboa izanen zen, Ezkabarteko Udala zer egoera ekonomikotan utzia izan den ikusita.

C) Obraren bideragarritasunik eza.

II. atalaren barrenean biziki deigarria suertatzen da 2005eko maiatzean, eta ozta-ozta 15 eguneko aldearekin, guztiz ezberdinak ziren bi finantzaketa-plan aurkeztu izana. Maiatzaren 2koan, kreditu-eragiketek 600.000 euro egiten zituzten, eta maiatzaren 17koan 887.760 euroraino igo ziren. Horrela, obra-egite osoarengatik finantzaturiko azken zenbatekoa, urbanizazioa barne, 1.200.000 eurokoa izan zen.

Izan ere, finantzaketa-plan hori aurkeztu zen garaian zeharo ezinezkoa zen obra finantzatzeko formula zehaztea, urteko kontuak oraindik onetsi gabe baitzeuden. Ikus bedi erantsitako ziurtagiria, aurrekontuen eta kontuen onespenezko adierazten direnekoa.

Beraz, ezinezkoa da finantzatu beharreko zenbatekoak eta formula bera aurreikustea.

Ondorioztapen modura, eta txosten exekutibotan 3. orrialdean adierazten denarekin kontrajarrita, kiroldegia eraikitzeko dirulaguntzaren ematea eta ordainketa, eta aztertutako espedienteak, ez ziren izan indarreko araudiaren arabekoak.

D) Obraren hasierari buruzko exigentzia.

VI.2.7 atalean aipatzen da, kudeaketan eragina izan zuen faktore gisa, obrak 2005ean hasteari buruzko exigentzia. Eragina izan ahal zuen arren, puntu hori ezin konparatuzkoa da legearen eta administrazio-kudeaketaren ikuspegitik burugabekeria hutsa, ondorio ekonomiko larriak ekarriko zituena, zenarekin: obraren kokalekua aldatzeko erabakia. Faktore hori da espedientean garrantzi eta eragin handiena daukana.

Kokaleku berria erabaki ondoren, inguru hartan hirigintza-alorreko tirabirak hasi ziren, eta udaleko gobernu-taldeak lursail hura birkalifikatu nahi izan zuen, 1.500 etxebizitzatarako, bere agintaldiaren amaieran onesteko asmoa izan zuen lurralde-okupazioko eredu eta estrategian azaltzen denez.

Gobernuak ez du inoiz bideragarritasun-txostenik egin lursailen urbanizazio- eta erosketa- kostuari buruz; izan ere, bi kuestio horiek dirulaguntza eman ondorengoak izan ziren. Kontuan izanik obra egin eta “azkartu” egin zela dirulaguntzaren eta 2005ean hasteari eraginpean, dirulaguntzak berak hauspotu zuen kiroldegiaren egitea. Halako moduz non, Gobernuak bete izan balitu bideragarritasunari buruzko legezko baldintzak, dirulaguntza ez baitzen emanen, eta Ezkabarteko Udalak ez zuen izanen hainbestearinoko zorpetze-mailarik.

HIRUGARRENA.- KONTRATATURIKO ARKITEKTOA

Txostenak jakitera ematen du udalaren aholkulari gisa kontrataturiko arkitektoak proiektuaren lizitazioan parte hartzearen ilegaltasuna. Gainera, txostenak adierazten du zuzendaritzaren eta udalaren arteko desadostasunak, bitasun hori tarteko, egokiro ebatzi ezina gertatu ahal izatea.

Egoera hori, zeinean aholkulari zen arkitektoak aukera baitzeukan bai udalaren bai udala osatzen zuten kontzejuen proiektuen idazketan eta zuzendaritzan parte hartzeko, erabat legez kanpoko da, eta Félix Idoate jaunaren legegintzaldian zehar errepikatua.

Gaur egungo udalbatzak ez dauka udalak aurretik zeukan idazkaritzak ilegaltasun-txostenik eman izanaren berri. Badirudi Comptos Ganberak ere ez duela halakorik aurkitu. Hain agerikoak diren lege-hauste horietaz ohartarazi beharra begi-bistakoa da.

Proiektuaren idazketaz eta zuzendaritzaz gain balioespen-oroitidazkiaren idazketaz ere arduratzea, bai eta proiektu-idazketa kontratatze aldera kasuko baldintza-orrien idazketan eta obra-zuzendaritzan ustez parte hartzea ere, zuzenbide penalean sailkaturiko jokabidea izan litezke. Era berean, garai hartako idazkaritzak jokabide hori errepikatzeak eta legezketasun-kontrol modu jarraituan ez egiteak ere, sailkapen hori bera izan lezake.

Teknikari horren jarduketak aurka egin die udalaren interesei obra-harreran. Pistarekin sortutako eraikuntza-problema ez zuen teknikariak ondo balioetsi, eta udalak kanpoko perizial batera jo behar izan zuen. Desadostasun horiek gaur den egunera arte beren horretan iraun dute.

Era berean, erantsi dugun Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenaren ondoren, teknikariak eraikuntza-enpresari aldeko tratua eman ahal izan diola ikusten da; izan ere, atzerapenaren ondoriozko penalizazioak exijitzeko aurreikusita

dagoen espedientea ez zen egin. Penalizazio horiek 128.000 euroan balioetsi dituzte zerbitzu juridikoek behin-behineko, eta garai hartako idazkari-tza ez zen atzerapenez ohartu.

Hori dela eta,

COMPTOS GANBERARI ESKATZEN DIOT idazki honen gorputzean adierazitako alegazioak behar den garaian eta moduan aurkeztutzat jo ditzala, egoki diren ondorioetarako.

Ezkabarten, 2009ko abuztuaren 3an.

Ezkabarteko Udaleko Alkatesa-Udalburua:
Carola Gutiérrez Collazos

María Raquel Pérez de Iriarte Mateo, Ezkabarteko Udaleko (Nafarroa) idazkaria naizen honek,

ZIURTATZEN DUT: Nire ardurapeko idazkaritza honetan gordetako datuak aztertuta, ondorioztatzen dela Aurrekontu Orokor Bateratuaren eta Aurrekontu Likidazioaren espedienteak, 2003, 2004 eta 2005ekoak, Udalaren Osoko Bilkuraren honako egun hauetako erabaki bidez onetsi zirela:

Aurrekontu Orokor Bateratua, 2003koa:
2003/04/28

2003ko aurrekontuaren likidazioa: 2004/01/19

Aurrekontu Orokor Bateratua, 2004koa:
2004/02/17

2004ko aurrekontuaren likidazioa: 2006/04/18

Aurrekontu Orokor Bateratua, 2005ekoa:
2005/03/15

2005eko aurrekontuaren likidazioa: 2007/04/30

Eta bidezkoa den guztietan hala ager dadin eta eragina izan dezan, honako ziurtagiri hau luzatzen dut, alkate-udalburuaren oniritziarekin eta udalaren zigiluarekin, Ezkabarten, bi mila eta bederatziko uztailaren hogeita hamaikan.

Udaleko idazkaria: María Raquel Pérez de Iriarte Mateo andrea

María-Carmen Lorente Gracia andreak, Nafarroako Administrazio Auzitegiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Zehaztuko den gora jotzeko errekurtsuaren espedientearen honako ebazpen hau eman dela:

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIA

HIRUGARREN ATALA

4166. EBAZPENA

LEHENDAKARIA: M.^a Asunción Erice Echegaray andrea

Epaileak: Jon Ander Pérez-Illzarbe Saragüeta jauna eta Miguel Izu Belloso jauna

Iruñean, bi mila eta bederatziko uztailaren hamazazpian.

Nafarroako Administrazio Auzitegiko Hirugarren Atalak, aldamenean adierazitako epaileek osatua, gora jotzeko 08-8273 errekurtsuaren espedientea ikusirik, zeina Lourdes Olaizola Zuazo andreak aurkeztua baita, "Construcciones Ecay, S.L."ren izenean eta haren ordezkari gisa, Ezkabarteko Udalak izandako erantzun-ezaren aurka, 2008ko ekainaren 19an aurkezturiko idazkian eginiko eskaera zela-eta, atxikitako kopurua eta sorturiko interesak ordaintzeari buruzkoa, Azozko kirol-instalazioak eraikitze obren kontratuaren espedientearen.

Testu-prestatzailea Jon Ander Pérez-Illzarbe Saragüeta izan da.

AURREKARIAK

1.- Ezkabarteko Udalak Azotzen kirol-instalazioak eraikitze obrak esleitu zizkion "Construcciones Ecay, S.L." enpresari, 2006ko urtarrilaren 4an izenpeturiko kontratu baten bitartez. Exekuzio epea sei hilabetekoa zen. Alabaina, inaugurazioa 2007ko apirilaren 26ra arte atzeratu zen.

2.- 2007ko uztailaren 2an harrera-akta bat sinatu zen, eta hartan adierazi ziren kontratistak zuzendu beharrekoak ziren zenbait oker.

3.- Lehenbiziko aurrekarian aipaturiko merkataritza-sozietateak zenbait faktura aurkeztu zituen Ezkabarteko Udalaren udal-erregistroan, 2007ko ekainetik azarora bitartean.

4.- Aurkeztutako fakturetako bat, 287/2007 zenbakiduna, 152.235 eurokoa, bost arkitekto osaturiko lan-talde batek aztertu zuen, zeren eta, neurri handian, obra-ziurtapenetan jasotzen ez ziren lanena baitzen, eta, zenbait kasutan, aldez aurretik ezarritako prezio kontrajarririk gabe. Lan-talde horrek eskatuta, 2008ko martxoaren 5ean enpresak prezio kontrajarrien proposamen bat aurkeztu zuen.

2008ko apirilean eginiko txosten batean, arkitektoen lantaldeak 3.763,16 euroan (BEZa barne) baloratu zituen sozietate errekurtsogileak fakturatutako kopuruaren gainean egin beharreko deskontuak; horrez gain, zenbait alderdiren frogagiriak eskatu zituen, aurkeztu gabe zeudenak.

Azkenean, Ezkabarteko Udaleko alkateak honako jakinarazpen hau bidali zion enpresari:

“(…) 287/2007 zenbakiko fakturari dagokionez, jakinarazten dizut ezen, faktura hori Ezkabarteko Udal Kiroldegirako obraren zuzendaritza fakultati-boak ikuskatu ondoren, (...) alkatetza honek erabaki duela faktura hori ordaintzea, nahiz eta, aipaturiko txostenean (udalak onetsia eta honekin batera bidaltzen zaizuna) adierazten diren arrazoiak direla-eta, fakturako guztizko kostutik 4.055,64 euro, BEZa barne, deskontatuko diren. Kopuru hori dagokio justifikatu gabeko kontusail-multzo bati.

5.- Administrazio-espeditentean jasotako hainbat txostenek eta udal dokumentuk enpresa horri leporatzen diote oraindik onbideratu gabeko erakuntza-akatsen erantzule izatea, zoladuraren eta bestelako akats batzuegatik epe batean zehar kiroldegia itxita egotearena, eta hasiera batean aurreikusitako exekuzio-epearekiko atzerapen nabarmena gertatu izanarena. Hori guztia aintzat harturik, Ezkabarteko Udalak, 2009ko apirilaren 23ko txosten batean, ondorioztatu zuen ez zela zilegi esleipen-hartzaile suertaturiko enpresak egin izandako askotariko eskaerak eta gogoetak onartzea, kobratzera aurkeztutako fakturen ordaintetan izandako berandutzaren interesak ordaintzeari buruzkoak (gai horren gainekoak dira espeditente bereko zenbait agiri), eta, bereziki, 2008ko ekainaren 19an aurkezturiko eskaera bat, bai eta 287/2007 zenbakidun fakturatik deskontaturiko kopurua ordaintzea ere.

6.- 2008ko azaroaren 26an, Lourdes Olaizola Ecay andreak, “Construcciones Ecay, S.L.” enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen, 2008ko ekainaren 19an aurkezturiko eskaerari, berandutza-interesak ordaintzekoari, administrazio-isiltasunaren bitartez ustezko ezetza ematearen aurka, eta 287/2007 zenbakidun fakturatik deskontaturiko kopurua ordaintzea eskatzeko.

7.- Auzitegi honetako lehendakariaren probidentzia baten bitartez, errekurtsua Ezkabarteko Udalarari igorri zitzaion, zertarako eta, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea garatzeko Erregelamenduko 12. artikuluan (artikulu horri maiatzaren 24ko 173/1999 Foru Dekretuak emandako testuaren arabera) Nafarroako toki entitateen egintza eta erabakiak aurkatzeari dagokionez xedatuari jarraikiz, administrazio-espeditentea edo horren kopia diligentziatua bidal zezan, eginiko epatze-jakinazpenak jasorik, eta, egokitzen joz gero, txostena edo alegazioak aurkez zitzan, errekurritutako ebazpena justifikatzeko. Aipaturiko entitateak bi puntu horiek bete egin zituen.

8.- Alderdiak ez dute eskatu frogatze-diligentziarik egin dadin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtsoaren xedea eta aplikatze-koa den araudia.

1. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko lehen xedapen iragankorrek esaten du: “Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie legeak indarra hartzen duen egunean administrazio klausula partikularren orriak edo baldintza arautzaileak onetsita ez dituzten kontratuei”. Kasu honetan klausulen orria 2005ean onetsita zegoenez gero, aurreko foru legean ezarritakoa aplikatu behar da; hots, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legean, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoan.

2. Sozietate errekurtsu-jartzaileak eskatzen du bere errekurtsu-idazkian adierazitako zenbait fakturari dagozkien berandutza-interesak ordaintzea. Faktura horiek Ezkabarteko Udalaren udal-erregistroan 2007ko ekainetik azarora bitartean aurkeztutakoak dira. Halaber eskatzen du deusezta dadin Ezkabarteko Udalak 287/2007 zenbakidun fakturaren zenbatekoari aplikaturiko deskontua.

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak honakoa xedatzen du bere 108. artikuluan: “Ordainketaren ondorioetarako, Administrazioak egiaztagiria luzatuko ditu hilero, denbora epe horretan egindako obrari buruzkoak, administrazio klausula partikularren pleguan kontrako aurreikuspena egin ez bada. Epe horien ordainketek kontu onerako ordainketaren izaera dute, azken neurketan egiten diren zuzenketa eta aldaketan menpekoak, eta ez dute inolaz ere esan nahi biltzen dituzten obrak onetsi eta onartzen direnik”.

Foru lege horretako 105. artikuluko 4. idatz-zatiak zehazten duenez, “Administrazioa behartuta egonen da prezioa ordaintzera obren egiaztagiria edo kontratua osorik edo hein batean egin dela frogatzen duten agiriak luzatu eta ondoko bi hilabetetan, 134. artikuluan ezarritako epe bereziaren kalterik gabe, eta berandutzen bada, kontratistari ordaindu beharko dio, bi hilabeteko epe hori betetzen denetik aurrera, diruaren legezkora korritua gehi 1,5 puntu, zor denarena”.

Jarraian aztertuko da ea legezkora kausarik izan den ala ez, Ezkabarteko Udalak argudiatzen duen bezala, ordainketen berandutzak justifikatzen dituenik; halaber jorratuko dugu 287/2007 fakturan egindako deskontuari dagokiona.

BIGARRENA.- 287/2007 zenbakidun faktura.

1. 2008ko ekainaren 27ko udal egintza batek, zeinaren kopia bat espeditentean jasota baitago, honakoa adierazten du: “(...) 287/2007 zenbakiko

fakturari dagokionez, jakinarazten dizut ezen, faktura hori Ezkabarteko Udal Kiroldegirako obraren zuzendaritza fakultatiboak ikuskatu ondoren, (...) alkatetza honek erabaki duela faktura hori ordaintzea, nahiz eta, aipaturiko txostenean (udalak onetsia eta honekin batera bidaltzen zaizuna) adierazten diren arrazoiak direla-eta, fakturako guztizko kostutik 4.055,64 euro, BEZa barne, deskontatuko diren. Kopuru hori dagokio justifikatu gabeko kontusail-multzo bati, zeinei buruz zuzendaritzak balioespen ekonomiko arrazoitu bat egiten duen, gure ustez alderdi guztiek adostu behar dutena (...).”

Udalak alegatzen du 2008ko ekainaren 27ko “erabaki” horri –egiazki, alkatetzaren ebazpen bat, formatu bitxia duena–, ez zitzaiola errekurtsorik aurkeztu epe eta modu egokian.

Atariko argitze-ohar modura, komeni da zehaztea ezen, administrazio-kontratazioaren esparru juridikoan, konturako ziurtagiriekiko desadostasunak ez direla (oro har) errekurtsoen bitartez ebazten, baizik eta alegazioak formulatuz, hurrengo ziurtagiriaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuak izan daitezten. Eta horrela elkarren segidan, harik eta azken ziurtagiria egiten den unera arte; azken horri bai, errekurtsu bereizia aurkez dakioke, jadanik ezinezkoa baita akatsak edo errakuntzak hurrengo ziurtagiriaren zuzentzea (halakorik ez baitago, nabaria denez).

Nolanahi dela ere, kasu honetan, sozietate errekurtsu-jartzailearen 287/2007 fakturan jasotako obrak, zeinak Alkatetzaren 2009ko ekainaren 27ko ebazpenean aipatuak baitira, ez dagozkie ez ziurtagiri partzialei ez eta amaierakoei ere; horren ordez, gehienbat dira ziurtagirietan jaso gabeko lanak, eta “aurreko bi likidazioetako” ezeinetan sartu gabekoak; hainbestera, non kontusail berriak aurrekusten baitira 10/1998 Foru Legeko 122. artikulua behartzen duenari jarraituz aurretiaz onetsiriko prezio kontrajarririk zehaztuta izan gabe.

2. Ondorioz, Alkatetzaren 2008ko ekainaren 27ko ebazpen hori jakinarazi izan balitz Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (APAJPEL) 58.2 artikulua ezarritako errekurtsu-oina izanik, errekurtsu-data baino lehenagotik jo ahalko zen egintza irmo eta baimendutzat. Baina kontua da espedientean ez dela agertzen eskatzekoa den errekurtsu-oina duen ezein jakinarazpenen kopiarik.

Gauzak horrela, aplikatzekoa da Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legeko artikulua bereko 3. zenbakian xedaturikoa: “Jakinarazpena egitera-

koan egintzaren testu osoa agertu arren, aurreko paragrafoan aipatutako gainerako baldintzetakoren bat bete gabe geratzen bada, orduan, jakinarazpenak ondorioak izateko, interesdunak erakutsi behar du badakiela ebazpen horretan edo jakinarazi edo ebatzi beharreko egintza horretan zer esaten den eta horrek zer-nolako eragina izan dezakeen. Beraz, interesdunak hori adierazten duten ekintzak eginez badakiela erakusten duen egunetik, edo, bestela, interesdunak dagokion errekurtsua aurkezten duenetik izango ditu ondorioak jakinarazpen horrek.”

Aski konplexuak direnez errekurtsu-jartzailearen fakturan Ezkabarteko Udalak 4.055,64 euroko deskontua egiteko kalkulu teknikoak, ezinezkoa da egintzaren edukia eta eragina jakintzat ematea, baldin eta ez bada agertzen bost arkitekto 2008ko apirilean sinaturiko txosten teknikoaren jakinarazpena, espedientean jasota dagoena. Eta, halaber, ez da agertzen azken jakinarazpen hori behar bezala egin zitzaionik sozietate errekurtsu-jartzaileari.

3. Horrenbestez, ulertu beharra dago Alkatetzaren 2008ko ekainaren 27ko ebazpen horrek ondorioak dituela sozietate errekurtsu-jartzaileak administrazio-auzitegi honen aurrean gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen unetik aurrera soilik.

Bidezkoa da, beraz, errekurtsua izapidetzera onartzea puntu horri dagokionez ere, eta aztertzea 287/2007 zenbakidun fakturan eginiko deskontuari dagokiona.

HIRUGARRENA.- 287/2007 fakturatik deskontatu beharreko zenbatekoa

1. Errekurtsu-jartzaileak igorritako 287/2007 zenbakidun fakturan deskontatu beharreko zenbatekoa, udalak kalkulatu, oinarrituta dago 2008ko apirilean bost arkitekto sinaturiko txosten xehatu eta zehatz batean, zeinak 3.763,16 euroan (BEZa barne) ebaluatzen baitzuten sozietate errekurtsu-jartzaileak proposaturiko kopuruan egin beharreko deskontuak.

2. Txosten horrek honakoak bezalako alderdiak zehazten zituen:

– “Construcciones Ecay-k helarazitako deskonposatu-taularen arabera, bigarren motako balbula murriztaileen aleko prezioa gehiegizkotzat jotzen da.”

– Halaber, “gehiegizkotzat irizten zaio fakturaturiko 37 orduko kopuruari, gogoan izanik bi erradiadore desmuntatzeko eta beste bi jartzeko erabiltako denbora dela.”

– Suebaki-pasta bidezko zigilaketaren kontusailari “deskontatu behar zaio eskainitako baja” itzalgailuen eta pinturaren kasuan bezalaxe.

– Halaber, behar adina justifikatu gabekotzat jotzen dira, gehiegizkoak izateagatik, aluminiozko erradapiaren metro linealaren aleko prezioak, omega-motako erremate-ertzenak eta altzairuzko hozkadura-markoenak.

– 05.10 kontusaila, “sorgailuaren ihes-hodia”, ez da onartu, proiektuaren aurrekontu-kontusailean jadanik sartuta zegoelako. Txostenaren amaierako atalak behar adina justifikatu gabeko kontusailak zerrendatzen ditu; besteak beste, honako hauek: terrazarako ur-hartunea, presioa murrizteko balbulak, erradiadoreen muntaketa eta desmuntaketa, suebaki-pasta bidezko zigilatzea, itzalgailu gehigarriak, habeak eta pasakableak margotzea, harri-errematerako omegak, angularrak, ihes-hodia eta hozkadurak.

Horren guztiaren ondoriozkoa zen 3.763,16 euroko deskontua (BEZa barne).

3. Baina, gainera, txostenak bi fakturaren falta nabaritzen zuen, Ur Mankomunitatearena eta Cepsarena, bai eta hodian instalazioaren lan-gaztiguen ere, zeinak beharrezkoak baitziren kontzeptu horrengatik fakturaturiko kostuarekin bat ote zetozen aztertzeko. Halaber ohartarazten zuen oraindik pintatu gabe zegoela tximinia; “horrenbestez, pintatu egin beharko da, edo, bestela, horri dago-kion neurketa fakturatik kanpo utzi beharko da.” Eta zalantzak adierazten zituen ate bikoitzen azpian jarritako eskuilei buruz: “ziurtatu beharko du haiek jartzean ezarri zitzaien zeregina betetzen dutela”; izan ere, arkitekto sinatzaileek ez dute behar adina frogatutzat jotzen puntu hori.

4. Hori guztia ikusirik, errekurtsio-jartzaileak fakturaturiko kopuruan egin beharrekoak diren deskontuen azken balioespena (4.055,64 euro, BEZa barne) ezin da inola ere nahierakeriazkotzat edo justifikaziorik gabekotzat jo.

Eragozpen horiek, udalak bere egin ondoren (nahiz eta, hasiera batean, udalak adierazi zuen oraindik ere deskontu askoz handiagoa egitearen aldekoa zela, espedienteko zenbait dokumentutan adierazten den bezalaxe), administrazio-egintzen “iuris tantum” egiazkotasun-presuntzioa daukate. Eta nahiko eta sobra betetzen dituzte APAJAPELeko 54. artikuluan xedatutakotik eratorritako motibazio-betekizunak –“in aliunde” motakoa, kasu hone-tan–.

Sozietate auzi-jartzaileak ez du inolako perituxostenik aurkeztu, bost arkitekto horiek adierazitako argudio eta kalkuluetakoko bakar bat serio

zalantzan jartzen duenik. Horrenbestez, ontzat hartu behar dugu eginbidez ordaindutako 61.050,03 euroko kopurua, 287/2007 zenbakidun fakturari dagozkion obren ondoriozkoa.

LAUGARRENA.- 287/2007 fakturaren ordaintzaren berandutza justifikatua.

1. Auzitegi honi bidalitako espedientean ez da agertzen 287/2007 faktura udalaren bulegoetan erregistratzearen datarik.

Sozietate errekurtsio-jartzaileak baieztapen bat egiten du –udalak ukatu gabekoa– faktura hori udal-erregistroan aurkeztu zen uneari buruz: 2007ko azaroaren 9a (erregistro-zenbakia: 20070000182).

Hortik ondorioztatzen du faktura 2008ko urtarrilaren 10a baino lehenago ordaindu behar izan zela.

2. Alabaina, sozietate errekurtsio-jartzaileak, antza, ahaztu egiten du 10/1998 Foru Legeko 123. artikulua honakoa ezartzen duela: “Kontratuen aldaketa espediente kontrajarriaren bidez izapidatuko da. Espedienteak honako jarduketak hauek edukiko ditu: a) Kontratuaren exekuzioaren jarraipenaz eta kontrolaz arduratzen den administrazio unitateak edo Administrazio kontratugileak jarritako zuzendari fakultatiboak proposamena prestatzea. Honi egin nahi den aldaketa zehazteko eta baloratzeko behar diren agiriak gehituko zaizkio.

Proposamena Administrazioetik sortu ez bada, honen zerbitzu teknikoek hari buruzko txostena egin beharko dute.

b) Kontratistari entzutea ematea, gutxienez ere hiru eguneko epean.

c) Kontratazio-organoaren zerbitzu juridikoen txostena.

d) Kontu-hartzailetzak gastua fiskalizatzea.

e) Kontratazio-organoak aldaketa eta dagozkion gastua onestea.”

Gainera, foru lege bereko 122. artikuluko 1. idatz-zatiak xedatzen du: “aldaketen ondorioz proiektuan ez dauden obra unitateak edo ezaugarrietan funtsezko diferentziak dituztenak sartu behar direnean, haien aplikazio prezioak Administrazioak finkatuko ditu, obren zuzendari fakultatiboaren proposamena eta kontratistak proposamen honi audientzia izapidetan eginiko oharpenak ikusita, gutxienez ere hiru eguneko epean. Finkatutako prezioak horrek onartzen ez baditu, obra unitateak egiten jarraitu beharko du eta horien prezioak arbitraje batzordeak erabakiko ditu, prozedura sumarioan. Horrek ez du galaraziko Administrazioak, edozein

kasutan, finkatu dituen prezioetan beste enpresari batekin kontratatu edo zuzenean exekutatu ahal izatea.”

Bada, horri buruz bost arkitektoari enkargaturiko txostenak, 2008ko apirilean emandakoak, jarraian adierazitakoa baieztatzen zuen:

“2007ko irailaren 26an, obra-zuzendaritzak Azozko (Ezkabarte) kirol-instalazioetarako obren amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen. Obra horiek Ezkabarteko Udalak sustatuak ziren, eta dokumentazioan jasotzen da Construcciones Ecay-k eginiko obren amaierako likidazioa.

2008ko urtarrilean, Ezkabarteko Udalak obren zuzendaritza fakultatiboari jakinarazi zion Construcciones Ecay-k faktura gehigarri bat erreklamatzeko zuela, kirol-instalazioetan eta urbanizazioan eginak ziren eta aurreko bi likidazioetan sartuak izan ez ziren lanengatik.

Faktura horren ondoren, 2008ko otsailaren 25ean Construcciones Ecay-k kontusail guztietako prezio deskonposatuak aurkeztu zituen.

Udalarekin aztertuta deskonposatuetan ez dela guztiz argituta geratzen lanen zenbatekoa, Ecay-k txosten bat aurkeztu zuen, 2008ko martxoaren 5ekoa, zeinean deskribatzen baitira kontusail bakoitzean eginiko lanak eta justifikatzen baitira aplikaturiko prezioak”

Horrela, ba, kasuko fakturak erreferentzia egiten zien ziurtagirietan jaso gabeko lanei, aurreko bi likidazioetan sartuak izan ez zirenei” Eta, gaineratik, kontusail berriak aipatzen zituen, behar bezala onetsiriko prezio kontrajarririk ez zeukatenak.

2008ko otsailaren 25 eta martxoaren 5era arte, enpresak ez zituen aurkeztu kontusail horietarako prezio kontrajarriak proposatzen zituzten txostenak. Beraz, sozietate errekurso-jartzaileak egun horietan proposaturiko prezioei zegokienez ebazpena emateko Udalak zeukan gehieneko epea ahitu aurretik, berandutzagatiko interesen sortza-pena bera ere ezin zen planteatu.

Ildo horretatik aipatu behar da ezen sozietate errekurso-jartzailearen ordezkariak aitortu zuela, 2008ko urtarrilaren 31ko data daraman dokumentu batean, ezen, urte horretako urtarrilaren 16an eginiko bilera batean, alkateak esan ziela udalak zuzendaritza fakultatiboarekin egiaztatu behar zituela une horretan 65.015,67 euroan fakturatzen zitzaizkion lanak, zeinak ziurtagirietatik bereizita aurkezten baitzitzaizkion, zuzendaritza fakultatiborekin oharrei men eginez. Eta onartu zuen ezen 2008ko urtarrilaren 30ean esan zitzaizkion faktura pasa zitzaizkion zuzendaritza fakultatiboari.

3. Kontuan izanik zer denbora-unetan aurkeztu ziren, azkenean, prezio kontrajarrien proposamenak, toki entitateak analiza zitzan (2008ko otsailaren 25a eta martxoaren 5a), ez da bidezkoa udalari justifikaziorik gabeko berandutza egoztearen haien analisi teknikoari dagokionez, zeren eta kontsultaturiko bost arkitektoek gai horri buruz izenpeturiko txostena 2008ko apirilean eman baitzen.

Komeni da ohartaraztea ezen, nahiz eta “sarturiko lan asko jabetzak nahiz kiroldegiaren kudeaketaz arduraturiko enpresak eskaturiko ekipamendu-unitate eta obra-hobekuntzetarako izan,” baldin eta kontratista batekin kontratua jaso gabe dauden obra-unitateak egitea onartzen badu, aurretiaz kontratua aldatzeko espediente dagoelarik horretarako ezarritako prozedurari (kasu honetan, 10/1998 Foru Legeko 122 eta 123. artikuluetakoa) jarraituz izapidetu gabe, orduan bere gain hartu behar duela obra-unitate horiek ezin kobratzearen arriskua harik eta izapidetze-akats horiek zuzenduak izan arte; are gehiago, oraindik ere Administrazioak zer eta bere adostasuna ere eman gabe daukanean obra-unitate berri bakoitzerako prezio kontrajarriei dagokienez.

Aipaturiko 10/1998 Foru Legeak osatzen duen esparru juridikoaren arabera, ez badago behar bezala onetsiriko aurretiazko kontratu-aldaketarik, soil-soilik planteatu ahalko litzateke –gehienez ere– ondare-erantzukizuneko akzio bat (APAJA-PELeko X. tituluko 1. kapitulua eta xedapen horiekin bat datozenak), ordaina eskatzeko zergatik eta egindakoaren erregularizazio-espedientearen izapidetzean izandako berandutza justifikatu gabeetatik eratorritako gastu finantzarioengatik.

Baina ez gaude kasu horretan, udalak kontsultaturiko arkitektoen peritu-txostena 2008ko apirilekoa baita, eta bertan, errekurtsogileak proposaturiko prezio kontrajarriak analizatzeaz gain (bai eta gehiegizko neurketa zenbait, eta bestelako gai teknikoak ere, aurreko zuzenbidezko oinarrian azaltzen denez),:

– “Construcciones Ecay-ri eskatzen zaio helaraz ditzan” hoditeria-instalazioari dagozkion langaztiguak, fakturatutako kostuarekin bat ote datozen aztertzeko.

– Halaber ohartarazten zuen oraindik pintatu gabe zegoela tximinia; horrenbestez, “pintatu egin beharko da, edo, bestela, fakturatik kanpo utzi beharko da horri dagokion neurketa”.

– Ate bikoitzen azpiko eskuilei dagokienez, “ziurtatu beharko da haiek jartzearen helburua betetzen dutela”; izan ere, arkitekto sinatzaileek ez dute behar adina frogatuzat jotzen puntu hori.

– Eta, gainera, “06.08 eta 06.09 kontusailak, Ur Mankomunitatearen eta Cepsaren fakturak” ez dira agertzen enpresak bidalitako frogagirien artean; beraz, “Construcciones Ecay-ri eskatzen zaio bi faktura horiek erants ditzan”.

Orotara, beraz, aipaturiko 287/2007 fakturaren behin betiko zenbatekoa zehazteari zegokionez, 2008ko apirillean oraindik ere zenbait dokumentu zeuden aurkezteke, eta ezezaguna da dokumentu horiek guztiak azkenik aurkeztuak izan ziren une zehatza.

Bada, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (APAJAPEL) 42.5 artikulua xedatzen du: “prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko lege ezarri den gehieneko epean etendura izan daiteke ondorengo kasuotan: a) “Edozein interesduni akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren agiriak eta datuak bidal ditzan eskatu behar zaionean. Epea etenda egongo da, beraz, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arte, edo, bestela, horretarako emandako epea amaitu arte, beti ere, lege honen 71. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta”.

Horri guztiari gehitzen bazaio administrazio-eta kontabilitate-izapidetzerako beharrezkoa den denbora (ordaindu beharreko kopurua behin betikoz zehaztu ondoren), ondorioztatu behar da ezen faktura horren egiazko ordainketa-datak –2008ko uztailaren 1a– ez duela erakusten Ezkabarteko Udalak berandutza justifikaezinak izan dituenik. Espedienteak honakoaren lekukotasuna ematen du: toki entitateak arrazoiak nahiko eta sobra izan zituela 287/2007 faktura ez ordaintzeko harik eta ordaindu zuen arte.

BOSGARRENA. - Gora jotzeko bide honetatik lortu nahi diren ordainketak modu horretan egitearen onartezintasuna.

1. Ezkabarteko Udalak ez du zalantzan jartzen sozietate errekurso-jartzaileak 91/2007, 111/2007, 121/2007 eta 209/2007 zenbakidun fakturei dagozkien berandutza-interesei buruz eginiko kalkuluen zulentasuna. Baina alegatzen du ez dela onargarria erreklamaturiko interesen ordainketa, zeren eta udal horrekin konpentsatu beharreko kopuruak baitaude, hala nola:

a) 3.968,1 euro, kiroldegia itxita egondako egungengatik.

b) Atzerapenagatik penalizazioak, zuhurtasunezko kalkulu batean 128.466,6 euroan kokaturikoak. Ez da onargarria inolako kantitaterik ordaintzea, obra-gauzatzean akatsak izan baitira,

oraindik ebatzi gabe daudenak.” Baina aplikatzen den legeak ez du baimenik ematen “zuhurtasunezko kalkulu” huts batean oinarrituriko penalizazioak ezartzeko, baizik eta kontraesaneko prozedura bat, kontratistari entzutea emanen zaionekoa, aurrera eramatera behartzen du. Eta baieztapen hori bera egin beharra dago kalte-ordainei buruz.

2. 10/1998 Foru Legeko 101.3 artikulua xedatzen duenez (klausula-orriko 40. klausula espresuki lotzen zaio artikulua horri): “Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik, berandutu baldin bada epe osoa betetzeari dagokionez, Administrazioak bi aukera izanen ditu, kontratua amaiarazi edo hurrengo eskala honetan zehazten diren zigorrak ezarri” (eurotan eguneratu beharrekoa, jakina):

“500.000 pezeta bitarteko prezioa duten kontratuak, 500 pezeta eguneko

500.001 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 1.000 pezeta eguneko.

1.000.001 pezetatik 5.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 2.000 pezeta eguneko.

5.000.001 pezetatik 10.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 3.000 pezeta eguneko.

10.000.001 pezetatik 25.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 5.000 pezeta eguneko.

25.000.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 10.000 pezeta eguneko.

100.000.001 pezetatik 250.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 25.000 pezeta eguneko.

250.000.001 pezetatik 750.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 75.000 pezeta eguneko.

750.000.001 pezetatik 1.000.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 100.000 pezeta eguneko.

1.000.000.001 pezetatik aurrera, egunean 10.000 pezeta bakoitzeko 1”

Beraz, kontratistari egiazki egoztekoak diren berandutza-egunen kopurua zehaztuko duen espediente bat egon behar da, bai eta, adierazitako taularen arabera, eman beharrekoa den kalte-ordaina finkatuko duena ere.

3. Akatsei dagokienez, 2007ko uztailaren 2an obren harrera-akta egin zen, eta geroago eginiko zenbait txostenek osatu egin zuten detektatutako akatsen ebaluazioa. Baina kopuruen behin betiko zehaztapena egiteko, beharrezkoa da udalak espediente bat izapidetzea, zeinean erantzuna emanen baitzaie kontratistak aurkeztutako alegazioei. Eta gainera, ez da ahaztu behar berme bat eratu zela horretarako, 83.961,03 euroko zenbatekoa zeukan abal baten bitartez

10/1998 Foru Lege horrek berak 133. artikuluan honakoa ezartzen du: "1. Obrak bukatzean haien harrerari ekinen zaio. Bertan agertuko dira Administrazioak bere ordezkari gisa ipinitako fakultatiboa, obren zuzendaritzaz arduratzen den fakultatiboa eta kontratista, bere fakultatiboak lagunduta, egoki ikusten badu.

2. Obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera badaude, Administrazioak bere ordezkari gisa ipinitako funtzionario teknikoak hartzat emanen ditu, dagokion akta eginen da eta une horretan hasiko da berme-epea.

Obrak hartuak izateko egoeran ez daudenean, horrela jasoko da aktan eta obren zuzendariak ikusi diren akatsak ohartaraziko ditu eta behar diren argibideak zehaztuko ditu, akatsak zuzentzeko epea finkatuz. Aipatu epea iraganda kontratistak egiten ez badu, beste epe bat, luzaezina, eman ahalko zaio edo kontratua amaiazarazitaz deklaratu.

3. Berme-epea administrazio klausula partikularren pleguan ezarriko da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuz, eta ezin izanen da urte bat baino laburragoa izan, kasu bereziak salbu."

(...) 5. Harrera partziala egin ahalko da erabilpen publikorako ematen ahal diren faseetan egin daitezkeen obra zatietan, kontratuan ezarritakoaren arabera". Halaber, pleguko 28. klausulak zehaztu egiten du lan akastunak direla-eta jokatze modua. 41. eta 42. klausulek antolatzen dute harrera egiteko eta bermeak erabiltzeko modua, eta haietako lehenak zehazten du ezen "harrera-aktari atxikiko zaio azken obra-ziurtagiria, zeinak obraren likidazio-izaera izanen baitu, eta ziurtagiri hori sinatzeak berarekin dakar bi alderdiek ziurtagiria onartzen dutela. Esleipen-hartzaileak likidazioa onartzen ez badu, Ezkabarteko Udalak ofizioz onetsi ahalko du."

Ildo horretan barrena, 10/1998 Foru Legeko 40.2 artikulua onartzen dituen berme bakarrak dira prezioetik atxikitakoak, laguntza-kontratueta (betiere administrazio klausula partikularren pleguetan hori aurreikusita baldin badago). Kasu

honetan, plegu edo orriko 6. klausulak onartzen duen berme bakarra da eskudiruzkoa, zor-tituluen bidezkoa edo banku-abalaren bidezkoa, eta honakoa gehitzen du: "Abal bidez eginez gero, abal horrek izaera exekutiboa izanen du Ezkabarteko Udalaren alde, eta honako diligenzia hau jasoko du: "Abal hau ezin izanen da desegin Ezkabarteko Udalaren baimenik gabe". Eta espedienteetan jasota dago ezen, egin-eginean ere, abala eratu zela, 83.961,03 eurokoa.

Horrenbestez, eta laburbilduz, antzemandako eraikuntza-okarren zuzenketa gauzatu behar da 10/1998 Foru Legetik eta plegutik eratorritako prozedurei jarraituz, kontratistaren alegazioei erantzunez. Kasuko espedientearen instrukzioa egin ondoren, horretarako eraturako abala exekutatu ahalko da, horren beharra badago.

Eta zenbait akatsen ondorioz kiroldegiak epe batez itxita egon behar izatetik eratorritako kalteak ere espediente baten bitartez zehaztu behar dira, eta horretan erantzuna eman behar zaie pistaren zoladuran sorturiko problema konpontzeko aurkeztutako alternatibei buruz kontratistak eginiko alegazioei.

5. Orain arte esandakoa honela laburbil daiteke: Leudekeen erantzukizunen zenbateko zehatza finkatzen duen administrazio-egintzarik behar den moduan egiten ez den bitartean, ez da zilegi inolako konpentsaziorik egitea enpresa esleipen-hartzaileari zor zaizkion berandutza-interesekin.

Azaldutakoagatik, zilegi da kasuari 10/1998 Foru Legeko 105.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzea. Errekurtso-jartzaileari honako interes hauek ordaindu behar zaizkio: 42.164,23 euroko zenbatekoa duen 91/2007 fakturagatik, 91 egun; 120.186,85 euroko zenbatekoa duen 111/2007 fakturagatik, 43 egun; 152.235,5 euroko zenbatekoa duen 121/2007 fakturagatik, 42 egun; eta berandu ordaindutako 209/2007 faktura-zatiengatik: 47 egun (20.000 euro), 34 egun (7.441 euro), 26 egun (10.000 euro), 16 egun (10.000 euro) eta 8 egun (10.000 euro). Ondorioz, zilegi da gora jotzeko errekurtsoa partzialki baiestea.

Azaldutako guztiagatik, auzitegiak

EBATZI DU: Partzialki baietsi behar eta baiesten dugula goian zehazturiko gora jotzeko errekurtsoa, Lourdes Olaizola Ecay andreak aurkeztua, "Construcciones Ecay, S.L."ren izenean eta ordezkaritza, 2008ko ekainaren 19an aurkezturiko berandutza-interesengatik ordainketa-eskaerari administrazio-isiltasun bidez emandako ustezko ezezkoaren aurrean; eskaera horretan galdatzen zen, halaber, 287/2007 zenbakidun fakturatik kendutako kopurua ordaintzea. Aitortu egiten dugu

sozietate errekurtsio-jartzaileak daukan eskubidea, berandutza-interesak likidatuak eta ordainduak izan dakizkion, aplikatzekoa den legezko interesaren arabera, bosgarren zuzenbide-oinarriaren 5. zenbakian aipaturiko fakturei dagokienez.

Ebazpen honen bidez adierazten, agintzen eta izenpetzen dugu.- M^a Asunción Erice.- Jon Ander Pérez-Ilzarbe.- Miguel Izu.- Ziurtatzen dut.- María-Carmen Lorente, idazkaria.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, jakinarazpen honen bihamunetik aurrera kontatzen hasita BI HILABETE-KO epean.

Hala ager dadin, eta Ezkabarteko Udalari bidal dakion, ziurtagiri hau luzatzen dut, zeina Iruñean sinatzen baitut, bi mila eta bederatziko uztailaren hamazazpian.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Ezkabarteko Udaleko alkateak aurkezturiko alegazioei dagokienez, Comptos Ganberak honako zehaztapen hauek egin nahi ditu:

LEHENA A) Egia da behin-behineko txosteneko 3. orrialdean transkribapen-akats bat izan zela, eta behin betiko txostenean zuzenduta agertzen da. Horrela, ba, guztizko kostua 2.927.252 eurokoa da, txosteneko 11. orrialdean adierazten den bezala.

Alabaina, II.2 atalean, 5. orrialdean, gure ustez, eta alegatuaren aurka, oroitidazkiko zenbatespen zehatza agertzen da.

LEHENA B eta C) Comptos Ganberaren txosteneko zenbait epigrafeetan adierazten diren gogoretak edo gaiak dira, edukia aldatzen ez dutenak eta, kasuak kasu, alegazio-egileen iritziak jasotzen dituztenak.

LEHENA D) Kiroldegiaren behin betiko kokalekua eta ondorioak. Txosteneko II. Epigrafean (8. puntua) adierazten den bezalaxe, 2005eko irailaren 16ko ohiz kanpoko bilkuran, udalak AHO BATEZ erabaki zuen instalazioak beste kokaleku batean egitea, "ontzat hartuz aipaturiko lursailak urbanizatzeak obra hori exekutatzearan ekar litzaketen aurrekontu-aldaketak".

Gauza argia dirudi udala guztiz ohartzen zela kokaleku-aldaketak gastu berriak ekarriko zituela, eta horiek ontzat hartzeko borondatea bazegoela.

Alegazio horretan bertan adierazten da: "lursailen jabeekin sinaturiko hitzarmenaren ondorengo aldaketak lurzoruaren sailkapena aldatu zuen, ez

urbanizagarritik urbanizagarri. Hori jatorriz ez zuen planak planteatu, eta posible izanen zen, adibidez, industrialdearen garapenaren gerizpera ekartzea hori".

Gure txostenean esaten da (7. orrialdean): "lehenago, jabeek errekurtsio bat irabazia zeukaten, lursailari urbanizagarri izaera eman ziona".

Informazio horretan sakonduz, esan dezakegu Nafarroako Gobernuak, 2005eko abuztuaren 22ko bilkuran, 2005eko maiatzaren 13ko errekurtsio bat baietsi zuela, lursailen jabeek aurkeztua, eta lursailari urbanizagarri izaera eman ziela.

Txostenean zehazten denez, jabeekiko hitzarmenaren data 2005eko abenduaren 2a da; horrek esan nahi du jabeek aurkeztutako errekurtsioaren emaitza jadanik ezaguna zela.

Bestelako kontua da auzokide askori egokia ez iruditzea kiroldegiaren kokalekua. Dirudienez, gai hau erabakigarria izan zen 2007ko maiatzeko hauteskundera, zeinak aldaketa nabarmena ekarri baitzuen udaleko ordezkariaren osarara.

BIGARRENA. Bi lerrokadatan adieraz daiteke alegazio hau: "kiroldegia eraikitzeke dirulaguntza-aren ematea eta ordainketa, eta aztertutako espedienteak, ez ziren izan indarreko araudiaren araberrakoak".

"Halako moduz non, Gobernuak bete izan balitu bideragarritasunari buruzko legezko baldintzak, dirulaguntza ez baitzen emanen, eta Ezkabarteko Udalak ez zuen izanen hainbestearinoko zorpetze-mailarik".

Dirudienez, alegaziogileak ahaztu egiten du txosten hau egin zela udalak berak eginiko eskaera onartuz, sarreraren epigrafean jasotzen den bezala, eta, beraz, udalaren jarduna aztertzen duela, eta ez, ordea, Nafarroako Gobernuarena.

Horrela, ba, eta Comptos Ganbera honek Nafarroako Gobernuaren jarduna aztertu ez duela kontuan hartuta, bi alderdi zehaztu nahi ditugu:

a) Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Zuzendari Kudeatzailearen abuztuaren 8ko 488/2005 Ebazpenak, zeinaren bitartez onetsi baitzen Nafarroako toki-entitateentzako dirulaguntzak ematea, kirol-instalazioetako inbertsiorako, honakoa adierazten du: "... Toki Administrazioako Departamentuak bideragarritasun-txostenak egin ditu ebazpen honen bitartez diruz lagundutako toki-entitate guztiei buruz, zeinen proiektu edo oroitidazkiek 120.202,42 euroko kopurua gainditzen baitute".

b) Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari kokaleku-aldaketa xedatu zuen udal-erabakia

(2005eko irailaren 16koa) jakinarazteko oharraren kopia bat ageri da.

Jakina, komenigarria litzateke, eta are gehiago, beharrezkoa, erakunde guztietako proiektu guztiak aurkeztea legokiekeen bideragarritasun-planarekin batera, eta, inolako inbertsio-erabaki hartu aurretik, jakitea berreskuratze-epea zein den edo etorkizunean eratorriko diren kostuak; nolana ere, zilegi da aitortzea, halaber, jokamolde hori ez dela ohikoa gaur egungo administrazioetako ia bakar batean ere.

Gure txostenean joratu genituen dirulaguntza baten emateak entitate txikietan izan ohi dituen ondorioak, baina ez dugu ahaztu behar ezen udala demokratikoki hautatutako administrazio bat dela, behar adinako autonomia duena egin beharreko inbertsioak eta bere funtsen norakoa erabakitzeko.

HIRUGARRENA. Kontrataturiko arkitektoak proiektuaren lizitazioan parte-hartzeari dagokionez, Nafarroako Comptos Ganberak txostenean bere iritzia agertu du.

Alkate andreak alegatzen du jardun hori penalki sailkatua izateko modukoa dela. Comptos Ganberak, organo fiskalizatzaile den aldetik, ez dauka

izaera jurisdikzionalerako eskumenik, baina bai, ordea, zantzuak daudela jakinarazteko betebeharra, halako zantzuak badaudela jotzen duenean.

Baldin eta udalak baderitzo erantzukizun penalak egon daitezkeela, horien berri eman beharko lieke organo judicial eskudunei.

Bukatzeko, Nafarroako Comptos Ganberak gogoeta bat egin nahi du erakunde publikoen jardunari buruz. Horrenbestez, honakoak argi utzi behar dira:

– Erakunde ezberdinek jardunerako daukaten eskumena eta autonomia, prozedurak errespetatuz gero, betiere.

– Aldea dagoela desegokia den edo herritar askoren gustukoa ez den kudeaketa-lanaren eta jardun irregularren artean.

– Jarduketa irregular bat noiz den penalki sailkatua izateko modukoa.

– Eta, bestalde, zein diren erantzukizun politikoak, zeinek ez baitute zertan eratorri jardun irregularretatik edo legez kanpokoetatik.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 6an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde